

luma berrien eleak

2008ko ekaina

www.idazten.com

6.zb. 3 €

*idazle berrien sorlanak,
iritziak, ipuinak,
solas eta jolasak,
liburu-iruzkinak,
antzerkiak,
poesiak...*



**ITXARO
BORDA**rekin
solasean 29-35 or.

25. urteurrena

57. zenbakia

William A. Douglass, antropologoa:
"Euskal gaia ardatza da nire lanean"

2007ko urtarrila

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

12 Euskararen Erakileraren Normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian Josean Amundarain

16 Erdarazko ezker-izendoen euskarazko baliokideak Joan Garza

22 Enpresatik haragotik Pili kaltetada

19 Euskaraz Europarantz Ludger Mees

22 Pygmalion efektuaz: besterengoz bizi naut Joseba Aizpuru

58. zenbakia

Juan Ignazio Vidarte, Guggenheim Bilbako Museoaren zuzendaria:
"Herritarrek ez dute ikusten"

2007ko urria

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

16 Zenbakia eta puntua eskonde Maitu Arrastate

19 Subhitzalaren galarak Luistxo Fernandez

22 Ciza motibazioaren mitoa eta agiak Esteban Vicente

59. zenbakia

Jesus Altuna, antropologoa:
"Ezaugarri fisikoen berri ematea ez da arrazakeria"

2008ko uztarrila

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

25 urte

WiFi, haririk gabeko amarauna
WiFi? Wireless Fidelity (haririk gabeko fidelitatea) ingelesezko esapidearen lapurreta baino ez da. Teknologia honek edate, posta elektronikoa ikusi eta Internet erabili ahal izango duen edozein behar duen gurean zuzen zabaldu da. Gabe. Oraindik ere sarrera konplexuak zirela eta ez zirela, Interneten erabilera oso mugatuta zegoen. Baina, gaur egun, Interneten erabilera oso zabala da eta gure bizitza oso eragarkia da.

Erreportajea:
Gure hizkuntza oso eragarkia da eta Internet erabili ahal izango duen edozein behar duen gurean zuzen zabaldu da. Gabe. Oraindik ere sarrera konplexuak zirela eta ez zirela, Interneten erabilera oso mugatuta zegoen. Baina, gaur egun, Interneten erabilera oso zabala da eta gure bizitza oso eragarkia da.

Eztabaida: Zer egin zaramarekin?
Gure hizkuntza oso eragarkia da eta Internet erabili ahal izango duen edozein behar duen gurean zuzen zabaldu da. Gabe. Oraindik ere sarrera konplexuak zirela eta ez zirela, Interneten erabilera oso mugatuta zegoen. Baina, gaur egun, Interneten erabilera oso zabala da eta gure bizitza oso eragarkia da.

Uztailean aldizkariaren ale berezia





LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUETAN:

BILBO: Elkar-Iparragirre Megadenda.
La Casa del Libro.
IRUÑEA: Xalbador. Lanbroa taberna.
DONOSTIA: Bilintx
GASTEIZ: La Casa el Libro.
Elkar Megadenda
IRUN: Bilintx
BERGARA: Etxeapare
ZARAUTZ: Garaio liburudenda.
Indize liburudenda
ARETXABALETIA: Leniz liburudenda
eta kioskoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

IDAZLE ESKOLA
ZUZENDARIA: Tere Irastortza

IDAZKUNTZA KONTSEILUA:
1. eta 2. mailako ikasleak

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Amaia Amilibia Salgado
Bierrik elkarteko argitalpen zerbitzua

INPRIMAKETA:
GERTU Inprimategia
Zubillaga ind. 9 - 20560 Oñati

L.G.: SS-803/04

IRITZI ETA GOGOETA

<i>Lumetatik ixuritako katuak</i> – Ekaitz Goienetxea	4-5
<i>Eta idatzi egin nahi dut hala ere</i> – Itziar Gomez	5
<i>Gaztanbera</i> – Juan Miguel Munarriz	6-7
<i>Urepeleko haurrek ez dute Xalbador ezagutzen</i> – Iban Balerdi	7
<i>Etxe-abereak eta hizkuntza</i> – Igone Meaza	8-9

NARRAZIOAK

<i>Obsolete</i> – Aitziber Lekuona	10-11
▶▶▶ <i>Etortzeko joanak</i> – Amaia Artolazabal	11
<i>Ehunduz igoal</i> – Karmele Igartua	12
<i>Geltokiko begiradak</i> – Gorka Azkarate	13-14
▶▶▶ <i>Eguneroko pasadizoa</i> – Carmen Valois	14
▶▶▶ <i>Hamaikatu</i> – Ekaitz Goienetxea	15-16
▶▶▶ <i>Arimak</i> – Maku Noriega	17
<i>Festa-giroa</i> – Maku Noriega	17
<i>Amodiozko gutuna</i> – Maku Noriega	18
▶▶▶ <i>Iragarritako heriotza</i> – Leire Zubeldia	19

ELKARREKIN HIZKETAN

▶▶▶ <i>Idazle anonimoak</i> – Itziar Gomez	20-22
▶▶▶ <i>In-dependenzia</i> – Jon Orzaiz	23-24
<i>Ixil hadi!</i> – Iñaki Odriozola	24-26

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

<i>Eguzki Kristala</i> – Axun Gereka	27-28
--	-------

ELKARRIZKETA

<i>Solasean, Itxaro Bordarekin</i> – Ainara Maia Urroz	29-32
<i>Elkarrizketa poetikoa</i> – Ainara Maia Urroz	33-34
<i>Olerkia</i> – Ainara Maia Urroz	35

SOLAS ETA JOLAS

<i>Egunerokotasunari aurre egiteko dekalogo</i> – Carmen Valois	37
<i>Zoo-ilogikoa</i> – Ekaitz Goienetxea	37
<i>Dalai lamaren testa</i> – Carmen Valois eta Miren Juaristi	38
<i>Zepelele hiztegia</i> – Andoni Etxeberría	39-40
<i>Astoa</i> – Miren Juaristi	40

POESIA

▶▶▶ <i>Tabako kartoietan idatzitako testamentua</i> – Jon Orzaiz	41
<i>Olerkiak</i> – Miren Juaristi	41
▶▶▶ <i>Udaberri negutua</i> – Ainara Maia Urroz	42
<i>Poeta!</i> – Ainara Maia Urroz	42
▶▶▶ <i>Abisua</i> – Alaitz Vives	43
▶▶▶ <i>Hondartzan</i> – Alaitz Vives	43
▶▶▶ <i>Mugakook</i> – Alaitz Vives	43
▶▶▶ <i>Hainbat poema</i> – Andoni Etxeberría	44
▶▶▶ <i>Erroia</i> – Amaia Artolazabal	45
<i>Hego-aldiak</i> – Amaia Artolazabal	45
<i>Gizona joan zait etxetik</i> – Maku Noriega	46
▶▶▶ <i>Keinuak</i> – Gorka Azkarate	46
▶▶▶ <i>Kristalezkoa</i> – Gorka Azkarate	47
▶▶▶ <i>Nola esan?</i> – Itziar Gomez	48
▶▶▶ <i>Hitz jokoak</i> – Itziar Gomez	49

IRAKURKETAK

<i>Mailuaren odola</i> – Jon Urutxurtu	50
<i>Karlos Linazasoro</i> – Gorka Azkarate	51
<i>Bestiariora</i> – Alaitz Vives	52-53
<i>Antzararen bidea</i> – Leire Zubeldia	54
<i>Geroaren aurpegia</i> – Carmen Valois eta Itziar Gomez	55
<i>Bestaldean</i> – Ainara Maia	56

GURE ARRASTOA

57-59

HATSAREN POESIA

60

NOR DA NOR

61-62

lumetatik isuritako katuak

Literaturan, hainbat katu isuri izan dituzte idazleek beren lumetatik: maltzurak, lagunkoiak, misteriotsuak, jatunak... Katuak eta katuak irakur daitezke poemetan, ipuinetan, eleberrietan zein komikietan. Batzuk aipatuko ditugu, gure begien aurretik pasatutako orrietan aurkitutakoak, baina baietz irakurleak katu gehiago gogoratu.

Poesian, adibidez, Koldo Izagirrek sarri agerrazten ditu animaliak *Rimmel* bilduman, eta tartean katuak ere bai. Batean, adiskideari hoa zakurraren salara! esaten dio katu batek; beste batean, automobila izatea justifikatzeko katuak erabiltzen dituzte gurasoek umearen galderen aurrean: *Auto azpiak/ maite dituzte katuek// udan gerizpea behar dute/ eta neguan/ motorraren berora dira biltzen. Fabelas fabulosas en dialecto vizcaino* liburuan, hitz neurtuz kontatzen dira katuen eta katamotzen gorabeherak: gose delako etxetik basora alde egiten duenaren istorioa, edo txakurra bezain esanekoa ez izateagatik kaiolatutakoarena. Oskorrik ere famatu zuen abesti bat, *Katuen testamentue*.

Charles Baudelaire-ek *Katuak* poema idatzi zuen *Gaizkiaren loreak* liburuan: (...) *indarra eta gozotasuna/ katuena, egoileak eurak, hozberak*.

Federico Garcia Lorca idatzitako poema bat, *Canción novísima de los gatos*, 1986an aurkitu zuten, eta honela dio hasieran: *Mefistofeles etxezalea/ eguzkipean dago etzanda./ Katu dotorea da lehoi keinuduna,/ ondo hezia eta ona,/ nahiz eta apur bat bihurria*. Jorge Luis Borgesek ere badu poema pare bat, *A un gato eta Beppo*, Pablo Nerudak *Oda al gato* idatzi zuen amodiozko hogeit hamar poemen eta abesti desesperatu baten artean... Badira, beraz, silaba neurtuen gainean saltari aritu diren katuak.

Eta bide lauagoen gainean ibili direnak ere ez dira gutxi. Narrazio askotan irakurri ditugu katuei buruzkoak. Lewis Carroll-ek sortutako *Lurral-*

de Miresgarrian Alice-ri agertzen zaion cheshire katu marraduna, adibidez, (...) *oso astiro desagertu zen, buztanaren muturretik hasi eta irribarrean bukatuz* (...). Edgar Allan Poek bi katu izan zituen, eta horietako bat gaixotu egin zen Poeren emaztea hiltzean; *Katu beltza* idatzi zuen gero idazleak. Ernest Hemingway hogeit hamar katurekin bizi omen zen etxean, eta idatzi zuen ipuinetako bat *Katua euripean da*, Gabriel Garcia Marquezen ustez, irakurri duen ipuinik onenetakoa. Julio Cortazarrek ere bazuen katu bat, Teodoro W. Adorno, eta bere idatzietan agerrazten du behin baino gehiagotan: besteak beste, *Rayuela-n*, *Egunari itzulia laurogei mudutan-en* edota *Filosofoez eta katuez gehiago-n*; bere katuari jarritako izenaren zergatia azaltzen du azken horretan.

Eider Rodriguezen liburu berrienean bada ipuin bat, *Ez du katu bat balio*. Bertan, protagonistak estimu handiagoa dio katuari laneko nagusiari baino. Katua nobioak oparitu zion, krisialdi emozional bati aurre egiten lagunduko ziolakoan. Baina, katua hil egingo zaio. Eta berak lur jota jarraituko du, eta lanera joaten (nahiz eta beti berandu), eta nagusiaren harropuzkeriak ere bai. Nagusia akabatu nahiko luke. *Thelonious hilik da eta gizon horrek ez du katu bat balio*, dio protagonistak. Jose Luis Otamendiren narrazio batean, *Euri kontuak* liburuan, protagonistak *Katuak* izeneko poema bat itzuli behar du, Francisco Urondo delako argentinarraren batena, enkarguz, eta bizimodua aldatuko dio lan horrek, baita bere lagunari ere. (...) *bane-kien zirrara eragingo zidana lehen hitz horrek, eta idatzi egin dut. Katuak*.

Gehiago ere aurkituko ditugu, ziur, liburu eta filmetako lerroetan zehar. Horretarako, atzaparrak miatzatu eta orrietan arakatu, badira eta hamaika katu. Hamaikatu, lumetatik isuriak.

Ekaitz Goienetxe



Eta idatzi nahi dut hala ere!

Sinetsi nahi dut gizonezkoak eta emakumezkoak berdinak garela, baina oraindik orain, ez dakit zer pentsatu. Aste egun buru zuria dugu gaur eta etxean nago, ez dut lantokira joan behar. Etxean egin dezaket gaur dagoen lana. Eta haiek amaitutakoan idazteko denbora izango dut. Pozik nago, idatzi egin nahi baitut. Hiru orduz ipurdia aulkitik altxatu gabe eman ondoren, amaitu ditut lantokiko kontuak. Eta orain jabetu naiz etxeak inguratuta naukala. Kanpoan hego haizea dabilela sumatzen dut eta garbigailuan zabaldu zain dagoen arropa deika hasi zait; hego haizearekin berehalaxe lehertuko dela garrasika. Aulkitik jaiki eta arropa zintzilikatu dut eta bide batez garbitzeko zegoen beste arropa ere garbigailuan sartu. Programa laburra aukeratu eta martxan jarri dut. Idaztera eseri nahi dut, baina sukaldean nagonenez, bazkaria ere egin beharko dut ba! Atzo lekak eta oilaskoa egin nituen, herenegun dilistak... gaur pasta barazkiekin. Hogei minutuan bazkaria prest dago. Erabili ditudan ontziak garbitu eta lurra txukundu dut. Eta jakina, zoru garbigailua eskuetan nagoela komunari ere pasada emateko aprobeztatu dut. Hau da hau, begira nola dagoen ispilua, ur zipriztinez josia; zapia eta *spraya* hartu eta di da batean atera diot distira. Egongelara bidean haurren gela aurretik pasatu naiz, oihana ematen dute, arrastoak non nahi. Badakit nork bere gela jaso behar duela eta horixe esaten diet egunero. Eta egia esan, gelak jaso gabe agoantatzen dut gehienetan. Baina gaur, idazten hasateko, lasaitasuna behar dut eta gela horiek horrela egonda nekez lortuko dut. Tira, hamar mi-



nututan jasoko ditut, bistakoa behintzat. Baina gaurkoagatik bakarrik, e? Sukaldea, komuna eta gelak itxuroso geratu dira. Buel-tatu naiz egongelara eta lurra nola dagoen ikusteak ez dizkit gauzak errazten. Total, hamar minututan pasatuko dut eta xurgagailua. Amaitu ondoren, tramankulua armairuan gorde eta errebisioa egin diot etxe osoari. Tira, ez dago gaizki, etxea txukun eta garbi. Heldu da neuretzat tartea. Eseri naiz aulkian lasai, inongo oztoporik ez begi aurrean eta *riing!* Etxeko txirrina. Joan naiz atea zabaltzera eta alaba aurrez aurre! Dagoeneko eskolatik bueltan ala? Bazkaria berotu diot eta nahiz eta berak bakarrik baduen bazkaltzea, eguerdietan sekula elkarrekin egoten ez garenez, berarekin bazkaltzea erabaki dut. Pasta dastatu bitartean eguneko berri eman diogu elkarri, konplizitatea izan da bion artean aspaldiko partez. Mahaia jaso ondoren, idaztera joateko imintzioa egin dut eta alabak orduan ea kartetan egingo dugun. Ez dakit ba, idatzi egin nahi dut, baina zergatik ez? Pixka batean, alaba berriz ere eskolara bueltatu arte. Gustura aritu gara, elkarri ziria sartuz eta barezka. Konturatzerako autobusa hartzeko ordua heldu zaio. Gero arte! Eta orduan eseri naiz paper zuraren aurrean eta pentsatu dut; Gaur ez al dut alabarekin poesia idatzi? Eta bai, konbentzitura nago; emakumezkoak eta gizonezkoak ez gara berdinak oraindik orain. Gure heziketa bizkar gainean daramagu eta zail da etxea ez ikusten etxean gaudenean. Hobe bai morroia banu! Baina nik hala ere idatzi egin nahi dut.

Itziar Gomez Sarasola



Gaztanbera

Ai! Ai! Gaztanbera hil zaigu eta gu konturatu gabe!

Ez hartu hiztegia, ez! Gaztanbera zuen mamia da, horixe bera: ardi-esnari gatzagia bota ondoren lortzen dena. Baina, zuenak erre zaporea al dauka?... Gureak, bai! Eta gainera zeharo erabakigarria da: edo ez da zure gustukoa, edo zure postretrik gustukoena izanen da.

Lasai! Badakit joan den asteburuan jatetxe horretan jan duzula; eta nik, etxean... eta etxeoan-dreak egina, gainera! Orduan, zer dela eta hainbertze espantu? Bada, gure errezeta zahar hau, belaunaldiz belaunaldi modu berean egin izana, oso deigarria delako.

Baina, ez ote dugu milaka urteko errezeta hori galdu betiko? Ez dakit, ba! Susmo hori daukat. Milaka hori nahita idatzi dut, bai! Ikusi baino ez duzu egin behar zein tresna erabiltzen diren gaztanbera prestatzeko: lehena, kaikua, bere forma bereziarekin kuzinatzeko –bertan irakiten da ardi-esnea– gure garaian erabilgarri den egurrezko ontzi bakarra; eta bigarrena, harria, beheko suan txingar artean gori jartzen dena. Begira... begira... zure inguruan! Aizkorak, gurdiak –Mexikon, “*éste es mi carro*” eta sekulako “*ai-ga*” izanen duzu zure aurrean– itsasontziak... aztertzerakoan ea non kokatzen dituzun egurrezkoak eta harrizkoak!

Gaztanbera Baztanen, batez ere, oraintsu arte horrela egiten zen:

- Ardi-esnea
- Kaiku bat
- Harri bat, beheko suan beti
- Gatzagia
- Gatz apur bat

Kaikuan ardi-esnea jarri eta gero, sutan zuten harria hartu eta esnari ematen zioten; esneak, berehala irakiten zuen eta, tapa batez estalita, erre zaporea hartzen zuen; epela zegoenean, gatz apur bat bota ondoren, gatzagiarekin egin eta hamar minutuan, mugitu gabe, mamitzen zen.

Errezeta xumea, zalantzarik gabe; baina, gaur, gure baserrietan, gure etxeetan eginezina!

Zein izan ote da hainbertze urtetan erabilgarri izatearen sekretua? Gure baserrietan dena erraza zen: ardiak, etxe ondoan; kaikua, bere forma bereziari esker, aproposa ardia jezteko; etxeoak, lehen batez ere, inoiz itzaltzen ez zena; harriak, beti erabiltzeko prest; gatzagia, bildotsa hil berriarengandik jaso... Kate bat osatzen zuten eta, erran liteke, gatz zela, hain zuzen ere, kate honen osagai arrotzena.

Eta dena hain erraza izanik, zergatik dago galtzar betiko errezeta hau?

Ez diot modernitateari errua bota nahi, ezta, bai baserritarrek haien ekoizpenetan, bai saltzailleek haien dendetan, saltzeko bete behar dituzten arauen eraginari ere; baina, galdetu eginen bagenio etxeoandre bati zergatik ez duen gaztanbera egiten, ziur nago beheko sua pizten ez dutelako izanen litzatekeela bere erantzuna. Gaur etxe guztietan bitrozeramika edo horietako sukaldeak dituztelako, jada, ez dute harririk edo ez dute modurik gori-gori jartzeko; eta horrekin, kaiku-harri bikote perfektu horrek bere izaera galdu du.

Hala ere, nola edo hala, nork bere erara erretzen du esnea; eta gainera, gaur edozein dendetan aurki dezakezu botilatan ardi-esnea erre zapoarekin, baina...

Benetan harritzen nauena zera da: gure produktu enblematikoaren egoera zein hauskorra zen. Eta horretaz konturatzean, nahi gabe, nire pentsamendua gure hizkuntzara joan zait:

Arauk, debekuak, mesprezuak... A, eta modernitatea!

Ai! Ai! Kontuz modernitate kontzeptu horiekin! Azkenean, euskaraz mintzatzean gaurkotasuna ematen diogu gure hizkuntza zaharrari.

Eta ez ahaztu Detxepareren aldarria!: “... euskara, jalgi hadi plazara!”; eta biribildu bertze honekin: “... euskara, sar hadi ohera!”

Euskara ikasteko ordu asko eta asko sartu dituen baztandar honek erraten dizu!

Juan Miguel Munarriz

Urepeleko haurreko ez dute Xalbador ezagutzen

Donostialdean zenbaitek jatetxe bat dela esan lezake. Askori Xabier Lete edo Erramun Martikorenaren ahotsetan entzundako leloa gogoraziko dio. Norbaiti Gati-buren abestiaren titulua burura dakioke.



Iruñerrian disko eta liburu denda euskaltzale bat izan liteke. Eta Euskal Herriko edozein txokotan taberna edo ostatu baten izena ere bai.

Hala ere, euskal herritar (edo hiritar) gehientzat, bai Urepele eta bai Xalbador esanahi berezirik gabeko hitzak dira, Amezketa eta Fernando, edota Labraza eta Txasko bezalatsu. Infinitoaren zerrenda amaiezinean beste bi, norberaren izen propioen galaxian bi izar ikusezin gehiago.

Euskal hiztunen lurralde mugatuagoan ere zenbat ote lirateke gai, esaterako, herri baxenafarra mapan kokatzeko, edo bertsolari handiari buruzko beste daturik emateko? Basamortuko oasisen bila ote gabiltza, ilusio optikoen mende? Izan ere Iparraldean, Urepelen, bertako haurrek ez dute Xalbador ezagutzen.

Xalbadorri txistu egin zioten Bertsolari Txapelketa Nagusian Donostian, bere euskara ulergaitza egiten zitzaielako batzuei. Urte zenbait igaro arren, eta gaur egun gisa honetako egoera errepikatzea zail xamarra gertatu badaiteke ere, oraindik biziki nekeza suertatzen omen bestaldekoekin komunikatzea. Hainbeste harrotzen gaituenak, hainbeste aldentzen ote gaitu? Ibardin, Izpegi, Urkiaga eta Ibañeta ez dira, ordea, muga hutsak, libratu beharreko oztopoak, ezinduen herri eder-idiliko-ixilera iris-

teko. Bideak egiten bagaitu, zer hoberik Bortziriak, Mallerreka edota Baztan baino; nola ahantzi Eugi, Mezkiritz edota Aurizberri. Non da hausten katea? Non zatitzen gorputza? Non ahultzen bihotza? Alta, Urepeleko haurrek ez dakite Xalbador

zein zen.

Antza denez izen bat bizipen anitzi itsatsi daiteke, eta honen harira, Baigorriko eskualde ezkutuan emandako pasadizoa genuke. Lehen arruntagoa bazen ere Elizondo aldera jotzea, abiatu da bertako arotza kosta aldera, bere lanerako erreminta baten bila. Han da egun komertzioa, han saltoki erraldoiak, han salerosketaren zibilizaziorik aurreratuenak; han aseko dira behar denak eta sortuko berriak. Han itozten dira jaioberri eta agureak, eta irauten beste guztiak. Bere lan tresna, baina, momentuan ez daukatela adierazi eta hamar eguneko epean itzultzeko esan diote, ordurako izango dutela eta, preseski Alemaniatik ekarria.

Bi egun beranduago, Frantzia jai eguna izaki, muga zeharkatzea erabaki du. Badaki espainolez, ez da galduko. Jomuga ez izanagatik, behin bertan, burdindegi batean sartu eta galdegin du, itxaropen handirik gabe, lotsa arrasto fin gardena ezkutatuz. Hara! Badute berak nahi duena! Eibarren egina omen eta europarra baino salneurri hobean.

Hala eta guztiz ere, errepidea bukatzen den herri horretako umeek bere berri ez izatea heriotzatik hiru hamarkada besterik joan ez direnean...

Iban Balardi

Etxe abereak eta hizkuntza

Arraultzeak ala oiloa, hizkuntza ala mundua? Zer dator lehen? Jakina da herri baten inguru-neak, ohiturek eta bizipenek hizkuntzan izugarriko eragina dutela eta eragin hori hizkuntza-ren esparru guztietan ageri dela, baina aldi berean, hizkuntzak ere bere aztarnak utzi ohi ditu munduan, horregatik esan genezake mundua eskura jartzeko izendatu egin behar ditugula gauzak, eta aldi berean, mundu berri bat deskubritu nahi badugu, mundu hori izendatu beharrean gaudela, inolaz ere.

Horregatik edo, animaliak ere baserri ingurura ekartzeaz batera, izendatu ditugu, baina hainbatetan mundura atera garenean, munduaren berri emateko animalien ezaugarriak hartu ohi ditugu abiapuntu.

ANIMALIAK IZENDATU

Zergatik ote dauka tximeletak hainbeste izen eta erleak bat baino ez? Hizkuntzan, denak dauka zergati bat, beti ezaguna ez izan arren. Behar bada, antzina baserritarrentzako garrantzia zuten gauzek, kasu honetan etxe-abereek, hitz bakarra hartuko zuten, baserritarrak elkarren artean ondo ulertzeko. Baserrirako baliagarriak ez zirenek, ordea, hainbat izen har zezaketen. Agian, erleak ezta lortzeko-eta erabiltzen denez, izen bakarra du baina tximeletek baserriari ezer ematen ez diotenez, ehunka izen dute.

Eta zer gertatzen da animalia ezezagunekin, egoera ezezagunekin? Nola izendatu? Euskal faunakoak ez diren animaliei izena emateko, euskara berba konposatuz ere baliatu ohi da. Esaterako, “idiaketz” edo “basidi”; “basasto” edo “basazaldi”; “basazezen” eta “adarbakar” edo “adarbakoitz”. Ikus daitekeenez, hitz konposatuak bai, baina etxe-abereen izenekin eratu ziren, ziurrenera hiztunak ezagunaren bidez ezezaguna identifikatzeko moduan izan zitezten.

Intsektuak izendatzeko erabiltzen diren kon-

posizioak ere aipagarriak dira. Holakoetan “sorgin” hitza da nagusi, “sorginorratz” esaterako. Eta euskal mitologian agertzen diren zenbait animaliak, bestalde, “gorri” adjektiboa hartzen du, hala nola, “txekorgorri”, “txahalgorri”...

MUNDU- EGOERA BERRIAK ANIMALI BIDEZ IZENDATU

Esamoldeetan ere etxe-abereen presentzia nabarmena da. Euskararen errekurtsio oso erabilia da konparazioa: *katuaren mihia baino finago, lupua baino gaziago, erbia baino bizkorrago, epe-rra baino zuhurrago, txoriak baino pozago, akerraren adarra baino gogorrago, sugearen eztena baino mingorrago...* Hainbat dira euskarak konparazio bidez eratu dituen esamoldeak.

Irudiak sortzeko hitz batez bakarrik balia gaitzke edota esaldi oso batez. Lexikoaren alorrean, esate baterako, berba bakarreko irudiak ditugu, hala nola, “azeria” pertsona bat zuhurra dela esateko, “satorra” azpijokoetan dabilela adierazteko, “txoria” gutxi jaten duela adierazteko, “astoa” burugorria dela esateko... Askok eta askok dira etxe-abereen izaeraren edo jokatzeko moduaren bidez buruan eratzten ditugun irudiak.

Esaera zaharretan ere etxe-abereak barra-barra aipatzen dira. Kasu honetan esaldi bidez irudikatzen dugu gure mundua, hori dela-eta, irudi hori konplexuagoa izan ohi da.

Horien artean, **astoa** da esamoldeetan eta esaera zaharretan gehien agertzen den animalia. Hamaikatxo esaera daude: *astoa saldu eta mandoa erosi* edo *zalditik astora joan*; *asto beltzarenak esan*; *asto bati buztana kendu eta beste bati ipini*; *astoa ehunetan*.

Zergatik ote dauka tximeletak hainbeste izen eta erlek bat baino ez?



Ahuntzaren kontuak ere ez dira gauerdiko eztularen neurrikoak, eta aipatu ohi dugu *ahuntza baratzean; ahuntzak adarrak dituen aldera.*

Behia eta **idia** ere arras gizatiar bihurtzen dira ondorengo esamoldeetan. *Lagunaren behiak erroa luze; behiaren bosgarren txahala bezala gelditu; uztarria ekartzea behia baino lehenago; idia ez da bakarrik uztartzen.; jan idiak legez; idia adarretik, gizona hitzetik atzematen da.*

Txerriak bizimodua bere heriotzean eman ohi zion baserritarrari eta noiz *urde hilak uzkia hotz noiz urdea hil eta kurrinka bizi* izan dira euskaldunak.

Eskerrak zaunka izan dugun alboan **zakurra** batzuetan, *atariko txakurrari baino jaramon gutxiago egin* diogun arren; besteetan *Txakurra baino goseago bizi* arren eta hainbatetan gure testuetan ere ibili izan garen *beti atzean txakurra- ren buztana legez.*

Eta inork **antzarrak** ferratzera bidali aurretik hobe izango da *antzarren lumatzen bizitzea* edo *antzarretara ibiltzea.*

Igone Meaza

Obsolete

Jainkoa haserre zegoela jakinarazi zien munduko biztanleei eta berarekin harremanetan jarri zela. Minduta omen zegoen gizakien jokarekin. Horrela adierazi zien behintzat EON-ek, jainkoaren mezulari izateaz gain AEBko presidentea ere bazenak. Telebista, irrati, prentsa zein internet bidez. Detaile gehiago ere eman zituen. Jainkoak, zigor modura, Ipar eta Hego Poloak urtzeko asmoa adierazi ziola, baita euri zaparradak bidaltzekoa ere. UHOLDE UNIBERTSALA terminoa erabili zuen. Jainkoarentzat Eon zen munduko gizonik ondraduena. Edo hori zen behintzat mezulariak berak adierazi zuena. Zeruko jaunak espazio UNTZI bat egiteko agindua eman ei zion eta bertan munduko animala -espezierik garrantzitsuenak sartzeko esan.

Eta Eon-entzat ez zen zaila izan aukeraketa: *Homo Politicus*, *Homo Belicus*, *Homo Religiosus*, *Homo Informaticus* eta *Homo Proletarius*. Talde bakoitzetik bikote bat aukeratu zuen eta azkenetik dozena bat. Beste mundu batean gizarte berri bat antolatzeko nahikoa izango ziren. Gai nontzeko espezieetatik ere bikote bana har zezakeela pasa zitzaion burutik baina...zertarako? Zoologiko gabe ere antola zezakeen gizarte berri bat.

Eta iritsi zen eguna. Jainkoak munduko bi muturretako izotza urtzeari eta euri zaparrada grisaskak bidaltzeari ekin zion. Berrogei egun eta berrogei gau luzez. Gelditu gabe. Euria goitik, ura zorutik...mendiak estali arte. Pixkanaka munduan geratu ziren animala guztiak hil egin ziren, erresistentzia gehiago edo gutxiago jarritz, heriotza azkarrago edo motelagoa pairatuz. Baina guztiak desagertu arte.

Bitartean, Eon-ek bere untzia gidatzen zuen espazioan barrena. Barruan bere familia eta aukeratutako espezieak. Lurra planetatik bizirik aterako bakarrak. Luzea izan zen bidaia eta elikagai eta ur eskasiak giroa jasanezin bihurtzen ari




zirenean begiztatu zuten helmuga. Planeta gorria. TARARA. Bele itxurako ontziak planetan lur hartu zuen. Astiro. Zalantzatsu. Hainbat ikerketa eginak zituzten bertan AEB eta Errusiako untzi espazialek. Baina ez ziren emaitzez fio.

Desertu moduko batean ibili ziren hainbat egunetan zehar, denboraren pertzepzioa ere galdu arte. Azkenean argi bat ikusi zuten...bi...hamar...milaka...miloika. Gorriak, berdeak, horiak, laranja...eta zarata. Sekulako iskanbila. Pixkanaka ohartu ziren. Hiri baten aurrean zeuden. Metropoli erraldoi baten pare parean. Baina bertako biztanleak ez ziren beraiek bezalakoak. Ez behintzat 2010 urtean Lurrean bizi ziren gizakien tankerakoak. Haiek baino aurrerago aurkitzen ziren eboluzioaren lerroan. Errobotak ziren.

Bertako hiritarrak berehala ohartu ziren gizakien presentziaz eta segundo gutxiren buruan atxilotuak izan ziren. Presondegi berezi batzuetan sartu zituzten. Bikote bakoitza gela batean. Eta amaiera zirudienak okerrera egin zuen leku hartako atea ireki eta arrapaladan ehundaka errobot sartu zirenean, metalezko kioletara hurbilduz. Kartzelako metalezko barren artetik jakinminez eta harridura aurpegiarekin begiratzen zieten beren mundua menderatzera iritsitako izaki bitxiei. Baina oldakorrak behar luketen konkistatzaileak izututa zeuden. Erabat.

Urteen poderioz ohitu egin ziren. Gauza guztietara ohitzen baita gizakia. Baita beraien kio-



L

B

E

letarajarrera erasokorrean botatzen zituzten kahaute antzekoez elikatzerera ere. Denborarekin libre izateko esperantza galdu zuten eta umorea ospintzen joan zitzairen. Gradualki. Atake psikotikoak izaten zituzten eta bisitariak erasotzeko zuten desira ezkutua agerian jartzen zuten. Sarritan.

Eta hor dago Eon, bere presondegian, bigarren GENESIA izango zela uste zuena idazten, AZKEN EPAIKETAREN atarian.

Aitziber Lekuona Mundain

Etortzeko joanak

Antzina idatzi zien Ritak gurasoei helbiderik gabeko lehen gutuna. Hura *Maite zaituztet* esanaz hasi zuen gerrako umeak. Izan ere, gudatik urruntzeko agurtu zituenean estazioan, negar bakarrik egin ahal izan zuen. Ordudanik, bizitzaren azken hiru laurdenak daramatza aurreko laurdenera eramango duen trenaren zain. Gaur bezala.

Geltokia euritik gordetzen duten burdinazko egitura hotzetan ilaran jarrita, goitik begiratzen diote usoek. Ritari so daude. Hegoaldeko herrialdeetatik bueltan fokuen epelean egin dituzte habiak.

Ikusten dute nola burua eskuin eskuaren gainean etzanda eta ukalondoa izterrean iltzatu dituen. Eserita dago larru urratuko maleta txoaren gainean. Hankak zintzilik ditu, kulunka edo. Horregatik, tarteka, *Rita Lizar* irakurtzen da ume letraz maletan; eta tarteka ikusten dira, nahita agerian utzi dituen gantxiloen cotton perle galtzerdi zuriak.

Tertziopelo urdin-iluneko lazoak kentzen dio ile lakarra kopetatik. Oinak eta burua umetxo batek bezala jantzita ditu. Ezpainetan sehaska kanta bat darabil, minez. Lepokoan amak oparitutako eraztuna darama, txiki geratu zaiolako zintzilika hau ere. Begiratzen dio eta zuloatik guda-lekuan jolasten ikusten du bere burua.

Balkoitik, parkean dauden haurrei begiratzen die Teok. Aspaldian ez du kalerik zapaldu. Logelatik egongelara eta egongelatik balkoira eramaten dute laukidun fieltrozko etxeko zapatilek, arrastaka. Eta zerua gorritzen denean kontrako bidea egiten du ohean negar egiteko. Gaur, berriz, egingo duen bezala.

Momentuan, euriak hingatutako zumezko besaulkian eserita dago. Gorputza indarge eta begi ximurrak jolasean dabilzan umeen artean, aurkituko ez dutela dakiten neskatilaren bila. Ile harrodon bati segi diote, baina ez da beraiek nahi luketena.

Egunero une hori iristen denean egiten duen bezala, errukiz begiratu dio magalean duen katu grisak. Eta eguneroko errituala betez erantzun dio agureak: ogi-mami bolatxoak jarri ditu barandailaren gainean, besaulkiaren inguruan, ihartutako landare-ontzietan... iparraldetik datozen usoak bera agurtzera etor daitezten.

Izan ere, emaztea hil zenetik oso bakarrik dago eta guda hartan trenak eramandako alabaren irudia ahaztuko duen beldur da.

Amaia Artolazabal Amilleta

Ehunduz igual



Gaur haria etenda bezala sentitzen naun, eta hutsetik ehuntzen hasi beharrean nagoela pentsatzeak nekatu egiten nain. Eta hirekin akordatu naun, gure etxe atzeko balkoian, behin eta berriz sarea ehuntzen dun armiarma horrekin eta hik ehundu ahala nik, hautsak ganoraz astintzen ditudan bakoitzean, suntsitzen dudan bizi-sarearekin.

Erabakiz, amorruz esango ninake, ezereztan dinat hire ehungintza artetsua, noiz edo noiz gure alaba, atzeko balkoira ematen duen gela urdinean ziztatu izan dun gauak gogoan; aspaldiko ziztadak aitzaki, aspaldiko mendeku gurak asetzen bezala. Ganoraz, amorruz, erabakiz suntsitu, arretaz, soseguz ehundutako hire izatea.

Honez gero haserre edukiko haut; edo agian haserre ez, beldurrez igual, hurrengo, balkoian nire trapu zuria eskutan noiz azalduko naizen beldurrez; edo ez, edo nekatuta izango haiz, hire egite hauskorra onartuz, eta berriz eta berriz eta berriz izaten hasi beharraren markaz jaio ote hintzen pentsatzen, ehundutakoa zaintzeko gai ez eta etsiko dunan behingoz, ala ez, deliberatzen izango haiz agian, isilik.

Eta errukitu egin naun, armiarma nire balkoiko, errukitu higatik, armiarma azti, langilea; inoiz ikusi ez haudan armiarma beltz-atzeko balkoitakoa. Eta gero esan nahi izan dinat ba-

dakidala neke horretaz apur bat, eta ez gaituela hi edo ni sortzeak nekatzen, sortzean garelako egiten, ehundu ahala bizitzen; baina nekatzen gaitin, igual, sortzea ere errutina bihurtzeak; edo inorentzat ezer ez izateak, gure eskaintza inork ez jasotzeak; edo edozeinek trapu zuri-zuri batekin gure egintza zapuzteak.

Ez dun haserrea, ez; ez dun beldurra, ez; dun nekea.

Eta horrelakoxe burutazioetan, eta burutazioz-burutazio, atzeko balkoira atera naun erreka-haizea arnastearren, eta balkoia arakatu dinat hi topatzearen. Alferrik gaurkoan ere; baina nire burutazioek iraun bitartean ehundutako hire sare dotore, delikatua deskubritu dinat berriz, edo lehendabizikoz hamaikagarren aldiz; ihintzetan busti-busti, eguzki printzetan zintzilik, isilik.

Hantxe zegonan, hi ez bahengoen ere, hire sena sarean. Behatu haut hire izate ederrenean, eskarmentuak eta gero sortutako bide berrietan.

Inguruak txukundu dizkinat ganoraz.

Eta ez haut trapu zuriarekin desagerrarazi.

Karmele Igartua Bengoa

Geltokiko begiradak

Senarrak ez zuen azken aldian oso gustuko emaztea eta bederatzi urteko semearekin hirira erosketak egitera joatea; ordu luzetan dendaz-denda ibiltze hori astuna gertatzen zitzaion oso. Goizean indarrez ekin ohi zion jardunari, gogoz, baina orduak aurrera egin ahala, hirukoteak trinkotasuna galtzearekin batera, nekeak aise topatzen zuen euren arteko zirrikituak erreten sakon bilakatzeko modua.

Haseran dendetara elkarrekin sartu, jantziak aukeratu, aldagelara joan eta ispilu aurreko mugimendu zalantza korren aurrean elkarri iritzi eta aholkuak eman ohi zizkioten emazteak eta biek, eraman oneko haurraren begiradapean. Bazkalostean, berriz, dendetako erakusleioaren parean geratzeko hautua egin ohi zuen senarrak, barrurako asmorik gabe, emaztea, beti poltsikoan eraman ohi zuen gomazko pilota txoa lurraren aurka kolpatuz jolasean ari zen seme gogaitua eskutik arrastaka zeramala, dendara sartzen zen bitartean. Goizeko lehen orduan bizpahiru dendetan sartu-irten azkarra egitea nahikoa baitzuen senarrak udaberriko jendaurreko konpromezu garrantzitsuetara dotore joatea bermatzeko. Emaztearena, berriz, beste kontu bat zen. Goiza ez ezik, arratsaldea ere beharrezko zuen hark ezer tajuzkorik (bere iritziko) aurkituko bazuen. Eta bazitekeen, gainera, etxera esku hutsik itzuli eta ondorengo asteburuan ere hirira joan behar izatea, bilaketa jardun antzuari jarraipena ematera.

Larunbat hartan, ordea, udaberriko erosketan lanak bukatutzat emateko moduan ziren, zorionez. Kreditu txartelari astindu galantak eman ostean, hori bai. Erosketen ordainketa hiruzpalau hilabetez atzeratzeko aukeraz baliatzea zegoenetik, ordea, dena zen errazago, dena eramangarriago. Senitarteko eta lagunaren aurrean modako agertzeak zuen lehentasun; eta gero gerokoak.

Azken eguzki izpi ahulek hiria kolore epelez jantzi eta egunak gauerako jauzia egin ohi duen tarte laburrean geltokiratu ziren, bada, hirurak, senar-emazteak hiruna poltsa eskuetatik zintzilik eta semea pilota etengabe lurraren, pareten, farolen, zuhaitzen eta (nahigabe, ziurrenik) zenbait ibiltari eta txakurren aurka kolpatuz. Pendulu harmonikoak bailiran etengabeko dilindan zihoazen poltsa koloretsuak, ondo eginiko lanaren ikur nahastezin ziren; geltokia, eta ondorioz, etxerako bidea, hurbil somatzea, lehenagoko bisaia luzean aringarri (eta euren arteko erretena estali berri zuen ore trinko).

Ez zegoen jende askorik nasan. Erabiltaile gabezia omen, garraio publikoaren hutsunerik handiena. Bi minutu baino ez trena hel zedin. Haurrak pilota lurraren aurka kolpatzen zuen maiztasun beretsuan egiten zuen aurrera, urratsez-urrats, geltokiko ordulari erraldoiaren orratzik bizkorrenak. Halako batean, pilotak lurra kolpatu ordez haurraren oin muturra ukitu eta



bere kontrolpetik ospa egin zuen, ihes urdurian, nasan barrena, geltokiko zokogune umel batean pilaturik zeuden kartoizko kaxa batzuen aurka talka egin eta gelditu zen arte. Geltokira hurbiltzen ari zen trenaren hotsak, pilota berreskuratzerara abiatzeko haurrak egin zuen keinuak eta pilota heldu berri zen zokoguneko kartoizko kaxen mugimendu makalak eurenganatu zuten, modu bereztuan, guraso zalantzakorren arreta. Lozorrotik esnatu berri den hartz nagia bailitzan, giza irudi baten itzala azaleratu zen kaxen azpitik, pilotatxoaren talkak ernarazita. Pilota eskuan hartu eta hari begira geratu zen, kuluxkaren lorratzak uxatu ezinik. Burua jaso eta haurraren zein gurasoen begiradekin egin zuen bereak topo. Trena geltokira ailegatua zen ordurako eta nasan zegoen jende apurra barruruntz zihoan, pausoak inertzia hutsez emateak igortzen duen geldotasun irudian kateaturik. Haurrak pilotaren bila joateko baimena eskatu zion amari, burua biratu eta begietara begiratu.

Besotik estu heldu eta trenaren barnera bultzatu zuen indarrez amak haurra, ahal bezala ordurarte esku banatan zermatzen poltsakesku bakarraz oratuz. Hirukotea treneko zorua eta nasaren arteko bereizgarri diren bi mailatxoak igotzen ari zela, batere harmoniarik gabea begitandu zitzaion, trenenetengabeko joan etorrien jagole geltokiko egunkari saltzaileari, pendulu koloretsuen dilinda.

Gorka Azkarate



Eguneroko pasadizoa

Etxeko terrazan dabil ZZZZZZZ soinuari erreparatu dionean. Maindireak alde batera utzita, bere begiak saiatu dira soinuaren jatorria agerian uzten; orduantxe, amaraunarekin topo egin du, horra hor, soinuaren sorburua.

Hortxe daude, biak, sarean: armiarma eta eulia. Biak eme, biak beltz, biak intsektu; natura bereko arimak, kate bereko aleak. Bat hegalaria, bestea ez.

Eta borrokan ari dira, maila desberdineko borroka izan arren; armiarmak egoera horren kontrola mantentzen duen bitartean, eulia irauteko borrokan dabil, sutsu, baina alferrik, dagoeneko galtzailearen bidea hartu du eta.

Bista saretik aldenduz, lanari ekin dio berriro; segundo batzuetako kontua baino ez, eta isiltasuna, ez dago ezer: bere begiek ez dute lortuko bikote beltzaren arrastorik bilatzea.

Desorekak ez du utzi borrokaren zantzurik, anonimotasun galduan, begi pare baten testigantzarako.

Carmen Valois



hamaikatu

MARRAMIAURREA

Katu bat izan nahiko nuke.
Ordu luzeak lokartuta goxo-goxo emateko.
Begiak itxi eta gauzak usaimenarekin ezagutzeko.
Luzammmpenak egiteko, plazer hutsez, eta ez kasu egin gabe gorputza izorratuta sentitzen dudalako.
Neure burua miazkatzeko, inork etxeko garbitasuna nola egin agindu beharrik gabe .
Ibiltzea desfile elegante bihurtzeko. Saltoak, akrobazia ikuskizun.
Nahi dudanean pasiloetatik gora eta behera korrika hasteko zergatipai.
Zoroaldi esplikaezinak esplikatu behar ez izateko.
Laztanak eskatzeko gurgurgurka.
Katu bat izan nahiko nuke.
Nahi dudana izateak eta ez beste ezerk okupa ditzan nire hamaika bizitzak.
Ez dut lotsatu nahi, ez dut buruko minik nahi, ez dut eztabaidarik nahi, ez dut nahi... gurgurgurgur...

TURISMOA

Kalekatuak, eraikin berri bat egiteko obra-hondakinetan, eguzkipean etzanda, eroso, axolagabe. Beraien eremua da: ingurua hesituta dago pertsonentzat eta gaur ez dira langileak etorriko. Ez dakite gaur asteburua denik; bost axola. Bost axola turismoa erakartzen duen herri bateko alde zaharrean egoitea eremu hori (Biasteri, axola zaion irakurlearentzat). Bost axola turistek argazkiak ateratzea beraiei, herriko monumentu ikusgarrien artean turismo gidan aipatzen ez duten adreilu-mordoz-metal-xafraz-sastar-kontainerrez-hauts-pilaz osatutako multzo horri, alde zahar ederraren erdian katu zoologiko bat egongo balitz bezala.

Berdin zaie argazkiena, baina, gogaituta daude egun osoan zehar eta etengabe turis-

tek bizbizbizka deitzeaz, lo kuluxka patxatsua ezertarako eteteaz. "Begiratu hona, mixintxo! Begiraaa!". Katuek bekainak igotzen dituzte, zutitu, hankak luzatu, buelta erdia eman eta hesiguneko beste muturrera doaz. "Turista hauek baino gauza zentzubakoagorik... Enfin", irakurtzen zaie aurpegieran.

KARTZELA

Italian eman genituen lau hilabete t'erdi. Casinon bizi ginen, mendiz inguratutako herrian. Italiar askok ere ez daki non dagoen Casino. Antza, gutxi akordatzen dira bigarren mundu gerran han gertatutako sarraskiaz (harrezkeroztik bost hilerrri daude bertan); berdin dio. Etxebizitza alokatu batean bizi ginen, muino baten gainean, herriko teilatuak eta inguruko mendiak ikusteko moduan. Etxeko balkoira atera genuen sofa eta antolatu genuen begiralekua. Eta aurrez aurre, kartzela bat. Burutazio tristeetarako joera izan genezakeen hari begira, baina, keba, niente.

Presoek, denetarik egiten zuten dibertitzeko. Ez genien haien zigorrei pisurik kendu nahi, baina, beraiek bai, presoek zigorraren astuntasuna zeozelan arintzeko behar izugarria izango zuten eta, horretarako, denborapasa bihotz-altxagarriak antolatzen zituzten. Adibidez, futbol txapelketa bat jokatu zuten. Goizero-goizero, animu garrasiak entzuten ziren, eta baloia pasatzeko deiadarrak, eta goool aldarriak, oeee oe oe oeee! Inork golik sartzen ez zuen goizetan, beranduagora arte egiten genuen lo.

Kontzerturen bat edo beste ere antolatu zuten presondegian, eguen ilunabar batzuetan, eta guk ikusi ez baina entzun bai eta *bella serata* bat igarotzen genuen afalostean: rock kontzertua musutruk, paperean bildutako tabakoa eta *fragolino*a, mailukiekin egindako ardo ezta. Pisukideek ez zidaten sinesten euskal idazle haren ihesaldiaz kontatzen nie-

na, presondegitik bafle handi baten barruan sartuta atera zutenekoa. Abestia bai, abestia ezagutzen zuten.

Asteburuetan, presoen senideak gure etxe blokeratzen ziren, muino hartan igota barrotedun leihoei begiratu eta giltzapera-tutako senidea ikusteko itxaropenarekin. Behin baino gehiagotan lortu zuten ahotsak hesiak eta barroteak zeharkatzea: "Eh! Oh!", "Come stai!", "Amore!", "Guarda, questa è tua figlia!", "Forza!", "Ci vediamo presto!"...

Egia esan, tristeetan tristeena espetxeko zelatarien betebeharra iruditzen zitzaigun: ba-koitza bere kasernan aspertuta, euria egiten zuenean ezin irten eta eguzki kiskaltzailea ze-goenean irten nahi ez. Orduak eta orduak. Eta ordu gehiago. Ez gintuzten penatzen.

Han bizi izan ginen denbora tarte hartan, ez genuen inor ikusi espetxetik irteten edo sar-tzen: ez seniderik, ez zaindaririk, ezta espetxe-raturik ere... Inortxo ere ez zen kalera joan, guk dakigula, bat izan ezik. Bazen barroteen artetik nahierara sartu eta irteten zen bat: ka-tu bat, beltza, patxadatsua; tirokatua izateko beldurrik gabe, inoren mehatxurik gabe, espe-txea zer den kontzientziarik ez zuen bat.

Katu bat, beltza, barroteak zeharkatzen. Ba-rrote-zehar-katua.

ALERGIA

-Katu bat? Ezta pentsature!

-Zeba?

-Alergia izan ahal diozulako katuaren ileari!
'Irakurlea' filmean ama batek bere semeari esaten diona.

IRRATIA

Burua eta gorputza zerbaiten edo norbaiten kontra igurtzea gustatzen zaie katuei (eta nori ez?). Gose direnean, laztanguran daudenean, eremua feromonaz markatzeko... Gurgurka ere hasten dira, dardara gozarazle etengabe, eztiki, zeozer eskatzeko.

Nire irratia katuak baino laztanzaleagoa da. Askok urrunduz gero, interferentziak hasten da, seinalea ezin garbi jaso, mimo eske, hurbildu eta aparailua besoetan hartu arte. Orduan, altzoan hartuta, garden entzuten da kantuak; katua.

Ekaitz Goienetxea





arimak

Senarra lurperatu dut gaur goizean. Berak beti esaten zuen: "Jainkoak librea gaitzala laudorioen egunetik". Berari heldu zaio "laudorioen eguna" eta, bizitzaren paradoxak, oso laudorio gutxi jaso ditu gizajoak! Zein pena!

Dena den, bere bitzita motz horretan oso gauza gutxi egin zituen laudorioak jaso ahal izateko. Gizon krudela, zitala eta maltzurra zen, batez ere etxe-koekin. Kanpokoak ederki engainatzen zituen ume-aurpegi horrekin! Baina, ni bere beldurrez bizi izan naiz urte haue-tan. Jainkoak har dezala berekin!

Hala eta guztiz ere, orain, ohean, gure ohean, gure logelan, bion artean aukeraturako altzariz inguratuta, zalan-tza bat datorkit burura. Badakit non dagoen gorpua. Nik neuk ikusi dut hilkutxaren barruan eta hilerriko zuloan sartzen, baina, non dago arima?

Nik esango nuke hemen dagoela... nire aurpegitik oso hurbil senti deza- kedala bere arnasa, bere hatsa... Burkoan ikus dezaket bere buruaren mar-ka... Benetan beldurtuta nago... Ezin naiz mugitu... Norbaitekin hitz egin behar dut bestela zoratuko naiz... Non dago eskuko telefonoa? Hemen, he- men daukat...

- "Alazne! Izututa nago! Badakigu non utzi dugun bere gorpua, baina, arima, Alazne? Zer gertatzen da hildakoen ari- mekin? Nora doaz? Non gelditzen dira?

- "Lasai, laztana. Hildakoen arima ge- ratzen da bakarrik gogoratu nahi di- tuen jendearen bihotzean...!

festa-giroa

- Giro ederra gaur, ezta Satur?
- Bai, hala duk Genaro.
- Ederra zegok plaza argiz be- teta...
- Bai, oso ederra...
- Besteak, Erramun eta, etorri- ko dituk?
- Ez zekiat, ba...
- Gaur goizean Austin ikusi diat goiko larrean eta pasatu- ko zirela esan zidak, txikito batzuk hartuko genituela
- Orduan, hurbilduko dituk...
- Zer, uste duk gaur zer edo zer "egingo dugula"?
- ??????????
- Bai, motel, ez jarri lelo-aur- pegi hori... Bazekiat zertaz ari natzaian...
- !!!!!!!!!!!!!!!
- Hi, hi... bai inozoa!!!!!! Nes- kei buruz ari nauk, motel!!!
- !!!!!!!!!!!!!!!
- Begira, hor ditiagu bi, maja askoak, lirainak behintzat bai. Hurbilduko gaituk. Niretzat ile luzeduna, hiretzat bes- tea... neu hasiko nauk, hi nahiko traketsa haiz eginki- zun hauetan....jajajajajaja!!!!!!
- Nahi bezala....
- Aizak motel, eutsi goiari! Alaitu aurpegi hori! Zer nahi duk, ba? Beno, ile luzeduna hiretzat... baina, utzi niri hiz- ketan, hik hanka sartuko duk, ziur...
- Baina, Genaro!!!
- Ze baina eta ze bainondo!!!! Arraro habil gaur, gero!!!! Ba- hator edo lepotik eraman be- har haut? Aizak, motel, beste kontutxo bat... lortzen ba- diat, zera... hik badakik, nes- ka konbentzitzen badiat...ze- ra... badakik!! Utziko didak motorra neskarekin bueltatxo bat emateko?
- Bai, Genaro, lasai. Ez zegok arazorik....
- Badoa Genaro, poz-pezik. Pentsatzen du 20 urte dituela eta herriko jaietan dagoela. Ez da konturatzen niez naizela Sa- tur, bere betiko laguna, baizik eta Gabriel, bere anaia gaztee- na. Ez da gogoratzen duela bost urte psikiatriko honetan "bizi" dela... Ez daki laurogeita hiru urte dituela eta egun hartan eza- gutu zuen neska lirain harekin ezkondu zela eta sei seme-ala- ba izan zituztela. Ez da gogo- ratzen, emaztea hil zitzaione- an, penaren penaz burua gal- du zuela eta hona ekarri behar izan genuela ... Ez da gogora- tzen edo bere trikimailua da be- ra gabe bizirauteko...

Maku Noriega





Amodiozko gutuna

Kaixo maitea!

Zer moduz? Aspalditik elkarren berri izan gabe... Badakizu zergatik idazten dizudan, ezta? Bai, horixe da: gure ezkontzaren urtemuga, hamar urte ezkondu ginela... 10 urte dagoeneko! Zenbat gauza gertatu zaigun harrezkero, ezta?

Ezin dut egun hura ahaztu. Bi egun lehenago elurra egin bazuen ere, eguraldi eguzkitsua atera zitzaigun. Pozik geunden, ilusionaturik. Nik esango nuke zoriontsuak ginela elkarrekin proiektu bat hasteagatik... Eta ondo joan zitzaigula esan daiteke... Berhala ohitu ginen elkarrekin bizitzen, elkarri neurria hartzen... Zein atsegina zen lanetik ateratzea eta etxera bueltatzea jakinda norbait -zu- zain nuela....!

Gu bion arteko harremana sendoa zenez, hurrengo urratsa ematea erabaki genuen: mundu honetara, biok eraiki genuen mundu honetara, umetxo bat ekartzea, gure maitasunaren adierazgarri. Horrela heldu zen Ane. Zuk ordu luzeak erditzen eman ondoren, bere negar-oihuekin adierazi zigun hemen zegoela.

Ezin ginen zoriontsuagoak izan: gu biok eta gure alaba; ez genuen beste ezeren beharrik... Edo agian bai, behintzat nik... Horregatik sartu nuen hanka eta ordura arte bion artean eraiki genuen guztia galdu egin nuen, mozkortuta zaudenean etxeko giltzak gal ditzakezun bezala: oharkabean...

Nire hanka sartzeagatik niregandik banatzea erabaki zenuen. Min handia egin zidan zure erabaki horrek. Bihotzean labana sartu zenidan. Ez dizut inoiz barkatu hori. Nola barkatuko dizut zure ondotik urrunaraztea? Dena den, ni zure maitasuna behin eta berriro berreskuratzen saiatu nintzen. Alferrik, ordea! Zu ezezagun bihurtu zinen: hotz, urrun, zakar jokutzen zenuen nirekin. Zergatik aldaketa hori? Egin nuenagatik? Denok huts egin dezakegu noiz edo noiz... Baina, barkatzen jakin behar da...

Oso txarto pasarazi zenidan zure jarrera horrekin. Errudun sentiarazi ninduzun. Zuregandik banatutakoan, infernua ezagutu nuen: galduta nengoen, ez nekien zer egin, nola bete denbora, nora jo, norekin hitz egin... Iparra galdu nuen eta ez nuen nork lagundu.

Dakizunez, autoz bidaia luzeak egiten hasi nintzen, norabide jakinik gabe, agian galdutako ipar horren bila. Eta, zuk ondo dakizunez, bidaia horietako batean, gau ilun, hotz eta lainotsu batean, bizia galdu nuen errepidean...

Dena den, laztana, arrazoia duzu eta nik ere ez dakit barkatzen... Hemen naukazu, maitea, badakizu non, zuretzat espresuki prestatu dudan infernu honetan, zure zain. Izan ere, badakit laster etorriko zarela eta, horrexegatik, galdutako poza eta itxaropena berreskuratu dut. Laster izango zara nirekin, nire ondoan, eta oraingo honetan betiko. Datozen ezkontza-urtemuga guztiak elkarrekin ospatu ahal izango ditugu.... Zein pozik nagoen! Zu ez, laztana?

Oso laster arte, maitea. Musutxuak.
Zure senarra

Maku Noriega

iragarritako heriotza

Beroak betaurrekoak lurrindu dizkio. Hala ere, ez du bururik altxatzen lapiko paretik. Makarroiak desegiten ari dira denbora luzean sutan egon ondoren. Eltzean jira eta bira dabilta, Anek eskuetan duen egurrezko koilararen etenik gabeko mugimenduaren eraginez. Ostrukak lurpean nola, hala ezkutatu du Anek bere burua eltzearen hondoan. Bitartean, Alex, kanpin denda presatzen ari da eta Anek ez du bere lana mutilagunak baino lehenago amaitu nahi.

- Zer moduz doa afari hori maitea? Sa-belean katu bat urrumaka dudala dirudi- esan dio Alexek txistu eta kantu artean. - Berehala egongo da prest- erantzun dio Anek makarroi urtuei begira. Sua itzali eta ura xukatuz platerera bota du pasta zuria. Prestatu dituen makarroiaren antzera ikusten du Anek Alexen eta beraren arteko harremana: deseginda. Duela bi urte sugeak txoria bezala liluratu zuen biologo xaloak, gaur, ez dizkio sabeleko tximeletak dantzantzen. Lo daude tximeletak. Ez erlearen ziztadak eragindako zirrararen antzekorik, ez eulia larruazalean pausatzean sentitzen den moduko kilimarik, ez irribarrerik, ezta negarririk ere. Bien arteko maitasunak bizirik dirauela erakusten duen zantzu txikiarena ere ez du sumatzen Anek. Gainera, Alexek animaliekiko duen zaletasuna nekagarri egin zaio aspaldi honetan. Ezin du jasan bizidun horiek denbora luzez behatzeko duen joera aspergarria, bi matxinsalto ugalketa prozesu bete-betean ikusi zitueneko hartan bezala. Gorroto ditu maiz esaten dizkion "hartz-nagia banintz ere munduaren amaieraraino joango nintzateke zurekin" edo "zuregatik, balea hilko nuke txankletaz" bezalako esaldi mengelak. Dena den, Anek bigarren aukera bat eman nahi dio bien arteko harremanari, eta horregatik onartu zuen Alexek Iratiko oiha-nean asteburua igarotzeko egin zion proposamena.

Afaltzera eseri direnerako erabat ilundu da eguna. Alexek bi kopetako argi atera ditu motxilatik. Argiari eskerrak Anek eta Alexek ezin dute elkar begiratu, min ematen baitiote elkarri begietan. Bakoitzak bere makarroi platerean du arre-

ta jarrita. Baina bat-batean, *kla! kla!* entzun du Anek. *Kla!* eta *kla!* berriz ere. Intsektu batzuen hegalek bere kopetako argiaren gainazalaren kontra talka nola egiten duten sentitu du. *Kla!* eta *kla!* osterera ere. Erasotua sentitu da, eta zakar, lurrera bota du bonbilatxo lazoduna. Alexek bere kopetako eskuetan hartu du erasoaren egilea identifikatzeko esperantzan.



- Hara!- esan du ozen Alexek pozik. Anek, jasan duen erasoaren zergatia jakin nahi du noski, baina badaki ezer galdetzea Alexek biologo moduan dituen dohainak erakusteko beste aukera bat ematea dela. Ezin izan dio ordea jakin-minari eutsi: - Zer da? - erori da azkenean. - *Lampyris noctiluca* batekin egin dizu eraso. *Ipurtargi ar* batekin alegia. Eta horrek

badu bere azalpena. Ipurtargi arrek bioluminiszentzia, edo garbiago esanda, berorik gabeko argiarengatik lokalizatzen dituzte ipurtargi emeak. Beraz, emeek euren adbomeneko azken hiru segmentuetan dituzten milaka fotozioren bidez sortzen den argiari esker ugaltzen dira ipurtargiak. Ondorioa: Zure kopetako argia ipurtargi emea zela pentsatuz etorri dira horrelako abiadan ipurtargi arrak-. Ane, pixkanaka-pixkanaka, hegalek mugimendua geldotzen ari zaion ipurtargi arrari so dago. Alexen eskua sorbaldan pausatzen somatu du gero. - Gustura egon zaitezke, gutxitan izaten da ipurtargi bat ikusteko aukeraren esan dio goxo Alexek neskalagunaren begirada goibelaren kausa hiltzear dagoen ipurtargia dela pentsatuz. - Gustura...? - jarraitu du Anek aho txikiarekin. - Gaur egun ipurtargi bat ikustea zorte handia da. Azken urteetan asko urritu dira. Gure kopetekoak bezala, argi gehiegi dago gauean eta horrenbeste argiren artean, arrek ezin dituzte emeak aurkitu. Ezin dira ugaltu. Ipurtargiak agortzen ari dira.

Hitz horiekin batera lurrean dagoen ipurtargiak azken kolpea eman die hegalei. Alexek oraindik Aneren sorbaldan du eskua. - *Iragarritako heriotza ipurtargiena!* Anek atzamarrez zulo txiki bat egin du lurrean. Ipurtargiaren gorpurik sartu gabe estali du osterera.

Leire Zubeldia



idazle anonimoak

Anonimoa 1- Ion dut izena eta onartzen dut. Adizioa dut.

DENAK- Ongietorri, Jon.

Doktorea- Esan, Jon, duela zenbat hasi zinen honetan?

Anonimoa 1- Bueno, denbora dezente da.

Doktorea- Zenbat da “denbora dezente”?

Anonimoa 1- Urte batzuk.

Doktorea- Zenbat urte? Bat, bi...?

Anonimoa 1- Gehiago...

Doktorea- Gehiago???

Anonimoa 1- Bai, igual bost urte...

Doktorea- Uf! Zurea larria da ba orduan.

Anonimoa- Banengoan, bai. Horregatik bidali naute hona. Kasu larrietan aditua omen zara.

Doktorea- Tira, saiatzen naiz. Begira, hemen ikusten dituzun hauek ere zu bezala etorri ziren eta ari dira pixkanaka sendatzen, ezta Ainara?

Anonimoa 2- Bai, nik hobeto sumatzen dut neure burua. Ari naiz lehengo antsia hori gainditzen.

Doktorea- Jakina. Kontatu zure kasua Joni.

Anonimoa 2- Bueno, nirea oso kasu kezagarria zen, Irastortza doktorea oso ezkor agertu zen hasieran. Sendaezina nintzela ere pentsatu zuen.

Doktorea- Halaxe da, bai, ikusi egin behar zenuten zer nolako abstinentsia sindromea pasatu zuen.

Anonimoa 2- Goizean jaiki eta gauean loak harrapatu arte ez nuen beste ezertan pentsatzen. Obsesio ikaragarria nuen.

Doktorea- Bai horixe! Eta orain, begira, hortxe zaude lasai lasai eserita. Ez duzu lehengo beharra sentitzen, ezta?

Anonimoa 2- Ez, ez. Konturatu naiz bizitzan badaudela beste gauza batzuk. Telebista asko ari zait laguntzen, *reality* saioek adibidez burua apaltzen didate eta han azaltzen direnak ikusita pentsatzen dut. Zertarako idatzi?

Doktorea- Oso ondo, Ainara. Asko ari zara aurreratzen. Telebistaren adibidea oso baliagarria da, Ion. Abstinentsia sindromea asko baretzen du. Horretaz Juanmik ere asko daki.

Anonimoa 3- Bai. Ni hizkuntzak pozoituta egon nintzen. Ez nekien euskaraz eta tokiz kanpo sentitzen nintzen askotan. Hasieran euskaraz hitz egitea nuen helburu bakarra, baina gero...

Doktorea- Esan, lasai, Juanmi, gure hanka sartzeak onartzen ikasi behar dugu.

Anonimoa3- Gero idazten hasi nintzen eta koaderno eta boligrafoa eskuan egoten nintzen beti.

Doktorea- Juanmiren kasua ere ez da erraza izan, natura erruz gustatzen zitzaion eta horrek inspirazioa pizten zion.

Anonimoa 3- Baina orain ikasi dut mendira irratiarekin edo mobilarekin joaten eta askoz hobeto doakit. Horrela ez ditut txorien kantuak entzuten eta ez dut idazteko aitzakiarik topatzen.

Doktorea- Ondo, ondo... gustua ematen du zuek bezalako paziente zintzoekin. Zer duzu Carmen? Zuk ere hitz egin nahi duzu? Aurrera ba, emakumea!

Anonimoa 4- Oso ondo ulertzen zaitut, Ion. Ez ikaratu eta ez pentsa berezia zarenik. Hasieran uste dugu bizitzeko idatzi beharra daukagula, baina hori ez da horrela. Ezta, Miren?

Anonimoa 5- Arrazoi dun, Carmen, ni ere horrelaxe ibiltzen nindunan. Lanean ordenadore aurrean jartzen nintzenean, beti amaitzen ninan “nire dokumentuetan” sartuta eta poesiaren bat edo beste idazten.

- Doktorea-** Pentsa, poesia gainera! Gaixotasunaren aldakirik arriskutsuena! Ez da erraza izaten poeta birgizarteratzea, baina hementxe dituzu Miren eta Carmen ...
- Anonimoa 4-** Zuk ez etsi, Ion. Nik lortu dut agendarik gabe bizitzea. Orain ez dut atake literariorik izaten. Ederki bizi daiteke idatzi gabe.
- Anonimoa 6-** Ederki baino hobeto! Aske eta bake bakean esango nuke nik!
- Doktorea-** Hori da, Gorka. Horrela gustatzen zait, besteak animatzea. Gorka hona heldu zenean hitza zuen uneoro ahoan. Bertsolaria zen eta ezin zuen hitza baztertu, baina txoke terapia bat erabili genuen eta begira!
- Anonimoa 6-** Beste bat naiz orain! Lehen, tarte bat noiz topatuko ibiltzen nintzen, mendialdera arnasa hartzera joateko eta gero gustura idazteko, baina orain... geroz eta gusturago nago hirian. Paisaia grisak oreka ekarri dit.
- Doktorea-** Ondo, Gorka... martxa honetan laster emango dizugu alta. Eta zuk zer, Iñaki? Ez al diozu ezer esan behar Ioni?
- Anonimoa 7-** Bai, bai, jakina. Lasai egoteko, hasieran zaila egingo zaiola, pentsatzen dugula barrua askatzeko idaztea dela bide bakarra, baina bai zera!
- Doktorea-** Esan nola gainditu duzun zuk azkenean.
- Anonimoa 7-** Bueno, nik oso errotua nuen idazteko adizioa. Asko idazten nuen, denetik gainera: narrazioa, poesia, saiakera...
- Anonimoa 1-** Hara! Ba niri berdina gertatzen zait. Aldizkari batean egiten dut lan eta denetik idazten dut. Eta gero, jakina, ezin idatzi gabe egon. Pentsa! Horoskopoak ere idatzi izan ditut!
- DENAK-** Horoskopoak???
- Anonimoa 1-** Bai, badakit oso larria da eta lotsatu egiten naiz...
- Doktorea-** Bueno, bueno, ez galdu itxaropena. Hor ikusten duzun hori Itziar da, ez da erabat sendatu oraindik, baina ari da. Zer, Itziar? Zer moduz zaude?
- Anonimoa 8-** Hobeto.
- Doktorea-** Itziar gaur arte ekialdeko pabilioian egon da isolatuta, baina azken hiru egunetan ez du ezer idatzi eta gaur atera dugu. Kontatu Ioni zure esperientzia.
- Anonimoa 8-** Bueno, niri beti gustatu izan zait idaztea, hain aske sentitzen nintzen hitzekin jokatzen...
- Doktorea-** Itziar!
- Anonimoa 8-** Barkatu, hori lehen zen, jakina, orain ez dut idatzi nahi, ez dut idazten. Baina batzuetan... nahi gabe... eskuak ihes egiten dit eta zerbait idazten dut...
- Doktorea-** Baina hiru egun daramazu ezer idatzi gabe, ezta?
- Anonimoa 8-** Gutxi gora behera...
- Doktorea-** Nola gutxi gora behera?
- Anonimoa 8-** Bueno, atzo...
- Anonimoa 4-** Itziar, ez didazu esango berriz ere egin duzula?
- Anonimoa 7-** Ez nuen nahi, baina...
- Anonimoa 5-** Baina zer? Lehengo egunekoa egin al dun?
- Anonimoa 7-** Bai!
- Anonimoa 6-** Joe, neska! Alferrrik da zurekin! Ezin al zara taldera egokitu?
- Anonimoa 2-** Beti "nabarmen" geratu behar!
- Doktorea-** Bueno, bueno, lasai zaitezte! Baina zure lagunek arrazoi dute, Itziar. Ea, erakutsi eskuak!
- Anonimoa 3-** Ala! Azkazalak zuri zuri ditu orain ere!

Anonimoa 8- Joo... nik ez nuen idatzi nahi, baina eskua hasi da horman jolasean eta konturatzera-ko hor ari nintzen azkazalekin kare harrian idazten.

Doktorea- Eta zer idatzi duzu?

Anonimoa 8- Ez naiz gogoratzten.

Anonimoa 9- Nik badakit! Oraintxe etorri naiz handik, "Gora poesia, ematen dit bizia!" idatzi du.

Anonimoa 8- Nahi gabe izan da!!

Anonimoa 9- Gezurra! Gauero zaindaria erosi nahian ibiltzen zara! Hor aritzen zaio esaten emateko paper mutur bat eta arkatza eta ordainetan amodiozko gutuna idatziko diola bere maitearentzat.

Anonimoa 8- Txantxetan esaten diot!

Doktorea- Hori esaten duzue guztiok...

Anonimoa 8- Nik ez nuen maite poesia, Ainarak du errua!

Anonimoa 3- Aizu, utzi ni bakean, aditu! Nik ez zintudan ezertara behartu!

Anonimoa 8- Ez zera! Eta nork erakutsi zidan Poesiaren Hatsarako bidea,e? Nork?

Doktorea- Zeu izan al zinen, Ainara?

Anonimoa 3- Ez ez, Irastortza doktorea! Badakizu horretan zein ibiltzen den: A. Zamora.

Doktorea- Bai, ezagutzen dugu elementu hori. Arriskutsua da oso.

Anonimoa 8- Eta Carmen ere ibiltzen zen Zamorarekin!

Anonimoa 4- Aizu, guapa, hobe zaude isilik.

Doktorea- Andoni! Eramazu Itziar isolamendu ziegara.

Anonimoa 8- Ez, ez, mesedez!! Isolamendu ziegara berriro ez!!

Doktorea- Bueno, ez kasu egin honi, Ion, beti egoten da ardi beltzen bat, badakizu. Zu, egon lasai, jar zaitetz beste Jonen ondoan eta honek ederki azalduko dizkizu ez idaztearen onurak, ezta Jon?

Anonimoa 10- Bai. Kaixo Ion, ni ere Jon naiz. Nik lagunduko dizut estatusunean. Gauean ezin egona baduzu, hots egin niri, aldameneko gelan egongo naiz.

Anonimoa 1- Zuk besteen aldean seguruago ematen duzu.

Anonimoa 10- Ni beti izan naiz taldeko indartsuena. Ez nengoen hauek bezain gaixorik. Poesiaren birusa ez zen niganaino heldu.

Anonimoa 1- Nik orduan zurekin egin nahi dut terapia.

Anonimoa 10- Jakina, adixkide. Zatoz, erakutsiko dizut non dagoen zure gela.

Doktorea- Zaude pixka batean. Kuriositatez...Nork esan zizun hona etortzeko?

Anonimoa 1- Bueno, ni ere hemengo hauek bezala Bergarara joaten nintzen eta...

Doktorea- Zer? Bergarako Idazle Eskolara???

Anonimoa 1- Bai, baina utzi dut, e??

Doktorea- Gaitzerdi orduan! Orain zoazte guztiok zuen geletara! Eta erne, ez ezer idatzi, aitu?

DENAK- Bai, Irastortza doktorea!

(Denek alde egiten dute eta doktoreak telefonoa hartzen du)

Doktorea- Hi, beste bat gutxiago idazteko...Bai, hau ere Bergaratik etorri duk, idazle eskolatik... Lasai, ingresatuta geratuko duk. Hilabete pare batean kendu zizkioagu idazle aireak honi ere. Ondo, Atxaga. Ez duk inor ausartuko zuei itzalik egiten... Bai, bai, nire kontu. Pasatuko zieat abisua Canori eta Letxundiri ere. Adio! Agg!Idazle gaiak! Mesedez! Hau da zoro kuadrilla!



(in)dependentzia



- Gaur manifa dago. Joango gara?
–Hombre, ba bai, ez? Nork deitzen du?
–Puta idearik ez, presoan aldeko ez-dakit-
zer. Seguru jende asko joango dela.
–Xabi eta Pituri esan diezu?
–Ez. Deituko diet.
–Ez, utzi niri. Pitu Movistar-ekoa da eta oso
merke ateratzen zait.
–Hostia tú! A ze mobila! Qué guapo, tío.
–Mola, e? Programa de puntos horrekin lor-
tu nuen.
–De puta madre. Kamerarik al du?
–Bai, eta mp3-a, Bluetooth...
–Eta jokoak?
–Baita, baina pixka bat kutreak dir... Pitu?
Qué pasa, chaval, qué te cuentas? Bai, he-
mentxe, Mikelekin, parkean. Livin’ la vi-
da loca. Oye, qué te iba a decir... Gaur
arratsaldean manifa dago. Etorriko?
Mmmmahá... bai... bai... Jodé qué chungo,
ez? Eta zer ordura arte te tiene tu viejo en-
cerrado? Ya... ya... Ze marroia. Aizu, ba
goiz libratzen bazara eman toke bat, OK?
Eta beste kontu bat... Xabi zertan dabil?
Bai? Hostia no me jodas! Qué guapo!
Agian deituko diot... Zuk ez dakizu Mo-
vistar-ekoa ote den, ez? Vodafone? Bua,
paso, que me cuesta un pico. Deituko dio-
zu zuk, manifarena esateko? Venga, mi-
lesker campeón. Hala, gudari, ondo segi.
Aio.
–Zer dio Pituk?
–Ezin duela. Que su viejo lo tiene trabajan-
do en la ferretería.
–Bua qué cabrón.
–Eta ezetz asmatu non hasi den Xabi lanean!
–Ez.
–Va, tío, Mikel, esfuérzate un poco, la hos-
tia!
–Jodé eta nik zer dakit? El Corte Inglés-en?
–Qué va, askoz hobe: Reverendos-en!
–No jodas!
- Horixe esan diot nik Pituri. Akojonantie.
–Baina, barran ari da edo
zer?
–Ezetz, hostia, deejay residente moduan.
–Xabi pinchadiscos? Gure Xabi?
–Orain “Dj Ttakun” da. Eta oso nahasketa
guapoak egiten omen ditu: Hertzainak
eta Su Ta Garren samplerrak techno eta
progressive baseen gainean. La hostia de-
la esan dit Pituk.
–Te cagas.
–Bai.
–Aizu, zer ordutan da manifa?
–Zortzietan. Autobus geltokitik aterako da.
–Eta zer ordu da orain?
–Seiak hogei gutxi.
–Joder, ba ni aspertuta nago jada. Petazeta
bat liatuko al dugu?
–Más quisiera, tío. Ez dut txinarik, ezta di-
rurik ere. Nago más tieso que la pata de
Cristo.
–Ya, ni ere bai. Eta Aritzen bajarara joaten
bagara? Playstation 3a erosi dute.
–PS3a? Baina nola? Pero si kotsola horrek
500 euro balio du, y el Aritz y esos son
unos muertos de hambre...
–Ya, bueno. En realidad, PS3a Piñosena da.
Bere amak erosi zion euskara azterketa
irailean gainditu zuelako.
–Ese con tal de viciarse a la Playstation es
capaz de aprender chino mandarín.
–Ya te digo.
–Eta joko asko al ditu?
–Bai, eta oso guapoak: “Gears Of War”,
“Pro-Evolution Soccer”, “GTA 4”...
–Horiek ere Piñosen amak erosita?
–Ez, horiek bajarakoen artean. Botea jarri
zuten.
–Bua, yo paso de ir allí.
–Zer ba?
–Ba Aritzen eta Piñosen bajarakoak flipau

- hutsak direlako. Rollo txarra izango dugu, ez digute jokatzeko utziko, eta uzten badigute are okerrago, que luego les deberemos un favor. Ezetz, tío, que paso.
- Bale, eta orduan zer?
- Nire etxera joan gaitezke. Emulekin pelikula pilo bat jaitsi ditut ordenagailura.
- Bai? Zeintzuk?
- Ba "La Jungla 4", "Transformers", "Resident Evil 3"... Ah, eta "Kutsidazu bidea, Ixabel".
- Zer?
- "Kutsidazu bidea, Ixabel".
- Eta ze hostia da hori? Alkain eta telebistako txistoso horien txorradaren bat, seguru.
- Bueno, bera azaltzen da, bai, baina...
- Paso. Si quisiera escuchar chistes de baserritarras me pondría la ETB. Gainera, en gipuzkera zerrau. Qué pereza, dios!
- Bueno, duela pare bat urte liburu hori irakurri behar izan genuen institutuan.
- Eta zuk irakurri zenuen? Bueno, oo, el intelectual!
- Bai, bueno, ez. Lehenbiziko hamar orrialdeak. Eta nahiko ondo zegoen. Te partías la caja.
- Bah, que no, que paso.
- ...
- ...
- Eta Herrikora bagoaz, manifa hasi bitartean?
- Bale. Gutxienez hor egongo da ambientillo euskaldun.
- Ya te digo.

Jon Orzaiz



isil hadi!

- Aizak, irten hadi automobiletik.
- Neurea duk, eta ondo nagok bertan.
- Ikusten duk hau?
- Zer? Niri ez zakilik atera, e? Horrekin ez nauk beldurtuko ta.
- Ez duk zakila, kirten hori. Errebolberra duk, eta honekin zakilarekin baino zulo handiagoa egingo diat ipurtaldean, ateratzen ez bahaiz.
- Ez diat bigarrenik behar, batekin nahikoa.
- Egon hadi, giltza kendu behar diat eta.
- Nola giltza kendu? Lagazak giltza dagoen tokian.
- Ez zeukaat besterik.
- Eskatu emazteari, hark edukiko dik ta.
- Ez. Hau duk emaztearen giltza, neurea apurtu egin zitzaidaan atzo.
- Aaa... Bere tokian jarrita lagako diat, ez arduratu.
- Orain, Alde!
- Beno, beno, baina gero, bide batez, utziak autoa ere toki berean, e?
- Bai, bai, lasai horregatik, postaz bidaliko diat, behar izanez gero.
- Orain ken itzak zapatak..
- Baina ezingo nauk ibili.
- Galtzetinak ere bai.
- Hotza izango diat oinetan
- Niri ez konta xeblekeriarik.
- Orain sar hadi atzeko kapotean.
- Jode! Ezin nauk taberna batean utzi?
- Ez zioat inori esango autoa itzuli arte.
- Sar ezak buru hori, bestela kaskarrekoa hartuko duk.
- Jartzak zapi hau begietan.
- Ez diat ezer ikusiko..
- Horretarako duk.
- Ez zegok eskubiderik.
- Egia duk, behingoz ados nagok hirekin.
- Hemen autobideak bakarrik zeudek, ez eskubideak.
- Ez nian hori esan nahi.
- Bada, ezin baduk esan nahi duana adierazi, ez ezak ezer esan.
- Nik esan nahi nian...



-Isil hadi, mesedez, ez nauk etorri hirekin berriketan egitera, kotxea lapurtzera baizik.

-Ba, ez nauk isilaraziko.

-Ikusten duk hau?

-Nola ikusiko diat, bada? Zapia zaukaat begietan. Zer jarri didak ahoan, errebolberra?

Horrekin ere ez nauk isilaraziko.

-Oraingoan ez duk errebolberra, babo halakoa! Baina honek isilduko hau.

-Ez diat hire zakila irentsiko.

-Aiiii! Pazientzia!

Goma zatia duk, kotxearen balantzarekin ez mingaina hortzikatzeko.

-Ez diat nahi ezer ahoan

-Ez hion hori esaten larunbat gauean emazteari.

-Hik nola dakik hori?

-Joder! Psikologoa naizelako. Mundu guztiak egiten

dik larrutan larunbat gauean.

-A, bai?

-Ala, heuk bakarrik egiten huela uste huen?

-Nik bakarrik ez, baina denak ere ez nian uste.

-Ea, ba. Hik zer egiten duk aste osoan?

-Ba, jaikitzen nauk goizeko seietan, aurpegia garbitu, eta...

-Bale, bale, baina, Zer egiten duk?

-Komunera joan?, autobusa hartu?

-Lana, motel, lana, hosti!

Aste osoan, astelehenetik ostiralera lanetan ari haiz, goizeko seietatik.

-Sei eta erdietatik.

-Berdin ziok, letxe!

Lan eta lan egiten duk! Eta gero, etxera heltzen haiz arratsean, nekaturik, erdi haserre. Erosketak egin behar, afaria prestatu, arropak tolestu... Bai, ala ez?

-Bai, bai, hala duk..

-Orduan, nola izango duk bada, larrutan egiteko gogo?

Larunbatean egin behar, iluntzean, txikiteoan ibili eta gero, igandean jai delako. Ez ala?

-Bai, bai...

Non ikasi huen psikologia?

-Hi burutik jota hago.

-Zer, ez zaizkik galdera konprometituak gustatzen?

-Zer diok? Ez bainauk ezagutzen.

Hiri gustatzen zaizkik horrelako galderak?

-Bai, egidak, egidak. Ni aditua nauk galdera bereziak erantzuten.

-Aspertuta naukak..

Bizi nahi al duk?

-Zer?

-Ez al duk esan galdera zailak gustatzen zaizkiala?

-Bai, bai.

-Ba, erantzun hau: Bizi nahi al duk?

-Bai, noski, eta ez edozein modutan gainera. Bizi nahi nitek, baina ondo, hau da, lanik egin gabe, kontu korronea bete- bete, BMWa, txaleta...

-eta emakumeak egunero zakila miazkatzen, ezta?

-Bai, nola dakik? Psikologo ona haiz benetan.

-Psikologoa ez, apaiza naizela uste diat, daukadan pazientziagatik.

Azkeneko aldiz esango diat. Isiltzen ez bahaiz akatu egingo haut.

-Bada, penagarria izango litzake. Horrela ez baituk jakingo altxorra non dagoen

-Zein altxor?

-Zelaimendiko kobazulo ezkutuan dagoen altxor miragarria.

-Zer diok? Altxor bat non dagoen dakiala?

-Jende guztiak zekik hori.

-Bada, niri ez zidak inork ezer esan.

-Bai, motel, azken karlistadan han lurperatu omen ziaten, eta gero, atera ez.

-Ta, hik, nola dakik ba, bidea?

-Ai, baboa, nik nola jakingo diat ba?

Denbora egiten ari nauk ea aspertzen haizen, edo berandutu egiten zaian kotxea hemen lagatzeko.

Psikologa izango haiz, baina inozoa ere bai.

-Egia duk! Zazpiak dituk. Honezkero itxi diate bankua.

Eta ostirala duk; ezingo diat asteleheneraino lanik egin.

Eta ez zaukaat batere dirurik.

-Bestela ere ez duk gehiegi izateko itxura.

-Txantxetan, ala?

-Ez, ez, inoiz ere ez.

-Denbora galarazi didak, eta gainera, Takolorenak egiten?

-Berandutu egin zaik. Ez da beste ezer. Datorren astean izango duk beste norbait lapurtzeko.

-Hire modukoa baduk, ihesik joango nauk, baina lehenik garbituko diat, berriketan utzi baino lehen.

-Lasai hadi, motel.

-Sudurrean hirugarren zuloa egiten diadanean erabat lasai geldituko nauk..

-Arnasa gehiago hartu ahal izango diat.

-Neuk ere bai, heu betirako isilik ikustean hasperen luzea egingo diat.

-Emaztea itxoiten izango duk dagoeneko.

-Egia! Baniak! emaztea zain izango diat eta.

Eta sekulako haserrea hartuko dik, gainera, kontatzen diodanean.

Arraioa!

-Ez nazak hemen utzi, esku eta begiak loturik.

-Nola askatuko haut ba?

Han joango hintzake aintxixika ertzainei esatera, "norbaitek kotxea lapurtu nahi izan dit" ... "norbaitek kotxea lapurtu nahi izan dit"

-Ta, zer egin behar didak, orduan?

-Ba, zakila aterako diat, eta bi tiro jo!

-Baina zakilaz ez duk tiro egiten.

-Ez, zakilaz, lehenik ipurtzuloa apurtuko diat, zeren emaztea muturtutik izanda, bihar ez diat txortan egiterik izango. Eta gero, errebolberaz tiroa emango diat

-A, ulertu diat.

-Eskerrak.

Ikusten zein ongi adierazten ditudan esan nahi ditudanak?

Ba, orain bukatu duk elkarrizketa.

-Pozten nauk hi ezagutzeaz. Inorekin ez diat aspaldian halako elkarrizketa luzerik izan. Eskertzekoa duk.

-Hori duk askok daukazuen arazoa, inork ez dizuela kasorik egiten.

-Bai, bai, hori duk.

-Gaur egungo gizartearen arazoa duk, inkomunikazioa. Bakoitzak berera bakarrik egiten dik. Elkarren alboan bizi gaituk, baina bakarrik.

-Soziologiaz ere badakik, ala?

-Ez, Zezen Korriden aurkako alderdiaren panfleto baten irakurri nian, joan zen hauteskundeetan.

-Utziko al didak neuri irakurtzen? Interesgarria zirudik.

-Bota egin nian, baina zioena azaldu diat. Garbi-garbi.

-Eskerrik asko.

-Ez horregatik. Agur.

-Azkar buka ezak, mesedez.

-Saiatuko naik. Agur.

-Baina...

-Isil hadi!

Inaki Odrizola

Eguzki kristala

Bazen behin munduan Printze jaio eta eder eta galant hazi zen haur zoragarri bat. Trebezi berezia erakutsi zuen batez ere borrokarako guda-tresnak erabiltzen, hala defentsan nola erasoan, bai zaldi gainean bai oinez, bakarrik nahiz talde-buru izanik. Gauza guztien gainetik kostatzen zitzaion inoren esanetara jartzea, inoren taldekide izatea.

Sendo, indartsu eta boteretsu ikusten zuen bere burua. Orduan, buru horren erdian ernatu zitzaion pentsamendu hura *“Nor ni baino gehiago?”*, hodei gisa lehenengo, geroxeago potolotuz eta laino itsu bihurtuz begietaraino jaitsi zitzaiona, harik eta zentzumen osoa hartu eta erabat aseta utzi arte. Horrela ilundu zitzaion Printze eder hari bihotzetik begietarainoko bide argi eta prestua. Gogo mugatuta gelditu zitzaion, eta esparru lainotsu hartan zutik gelditutako pentsamendu bakar hari baino ez zion jarraitu nahi izan: *“ni ez naiz inoren menpeko izango, neuk nahi dudana egingo dut”*.

“Nor ni baino gehiago?” galdetzen zuen. Eta halaxe ibili zen etengabe, ilargitik ilargira. Gau hartan, ordea, pausatu zen lekuan bertan etzan zen lotara, eta orro ikaragarri batzuk esnatu zuten: herensuge izugarri bat handik urruti ez zen leize-zulo batean bizi zen batenak. Berehala zuzendu zen hara, bere indarra herensugearenarekin neurtzeko asmotan. Leize-zuloaren atean dei egin zion ateratzeko esanez, eta herensugea bertan agertu zenean, zazpi Printze halakoa zen altueran. Atzeraka egin zuen Printzeak eta galdetu zuen:

- Zer gordetzen duzu hor barruan?
- Munduko harri kristalik ederrena, erabiltzen ikasiz gero, ahalmen osoak eskura jartzen dituen. Sugarretako diamantearen zaintzailea nauzu. Zein zara zu eta zer nahi duzu?
- Ni Printze Indartsua naiz eta leize-zuloan sartu nahi dut.
- Hemen biluzik sartu behar duzu, eta zu armaz beterik zatoz. Utzi bertan hori guztia, garbi zaitez eta eskatu baimena hona sartzeko.
- Ez! Ni zu bezain indartsua naiz, ez nauzu makurtuko.

Eta Printzea, haserre bizian eta laino gorriak kopeta guztiz itsutzen ziola, ikaragarritzko oihua eginez joan zitzaion tximista bezain azkar herensugeari, eta jauzi batez ezpata hondoratu zion sabelean. Herensugeak buruaz kolpatu eta airean bota zuen Printzea, ahoko suaz kiskaltzeko asmotan, baina hura jaiki eta lepotik sartu zion ezpata, behin eta berriz, bertan zerraldo utzita. Baina Printzea erreduraz zaurituta zegoen eta konortea galduta erori zen. Esnatu zenean hantxe zegoen herensugearen gorpua, baina ez zen leize-zuloaren arrastorik ere. Printzeak, armak eta zaldiak eskuratu eta alde egin zuen handik leize-zuloaren bila.

Ibai handiak zeharkatu zituen, herri batzuk besteren aurka altxatzen lagundu zuen, baita sarraski handiak egin ere, beti ere askatasunaren eta justiziaren izenean. Baina ez zen inoiz inon gelditzen guztia amaitu eta gero. Herensugeak hartzen zituen mendean, baina leize-zulorik ez zen sekula agertzen.

Halako batean iritsi zen itsasaldera, eta han ikaragarriko nekea sumatu zuen, bertan pausatu zen. Egunsentiero jartzen zen eguzkitan argi izpiez bustitzeko, buruko lanbroa leuntzeko esperantzaz.

Handik aurrera luzaroan jardun zuen itsaslapur gisa. Buruko lainoak ez zion bakerik ematen eta itsasoaren ostertzak bakarrik ematen zion atsedena.

Orduantxe gertatu zen ekaitz hura. Haizeak gogor eraso zuen itsasoa, trumoiek eta tximistek ere berea jarri zuten, eta instant batean urak ireki eta Printzearen itsasontzia irentsi zuten osorik.


Handik hiru egunetara olatuek Printzearen gorputza utzi zuten hondartzako bazter batean, harkaitz batzuen artean. Euri zaparradak dardara eragin zuen osorik bustitzen zuen gorputz hartan, eta Printzea bere kordera etorri zen. Hotzaren hotzez eta bustiaren bustiz babes bila abiatu zen. Lurretik jaiki eta hotzak airean abiatu zen korrika lanbro artean ikusten zen haitzarteko zulo batera. Hantxe aurkitu zuen herensuge bat, orduan konturatu zuen buruko argitasunaz, kanpoan zegoela lanbroa, ez ordea bere baitan. Herensugeak erakutsi zion munduko harribitxi preziatuena. Eguzkizko harri kristal hura bihotz gardeneko gerlarientzat gordeta zegoen.

Argiz beteriko sala ikaragarriko handi batean zegoen. Salaren erdian zulo bat zegoen, bertan eguzkia bera gordetzen zela ematen zuen, horren argi dirdiratsuz betetzen baitzuen mugarik ikusten ez zitzaion toki neurrigabeko hura. Eguzki haren gainean, goitik zintzilikatuta bezala zegoen elur mataza baten antzeko kristal borobil zuria, oso handia, unetan itsutzeko bezain zuria agertzen zena, eta beste jira batzuetan ortzadarraren kolorerik bizienak eta gardenenak erakusten zituen. Ezkerraldera ematen zituen bueltak, oso poliki.

Horrexek argitu zuen betirako eta sendatu Printzearen bihotzeko eta buruaren arteko bide lanbrotsua, garai bateko lainoaren aztarnarik txikiena ere desagertu arte. Printzea negarrez hasi eta malkoetan joan zitzaizkion bekokiko iluntasun guztiak.

Printzeak bere egiazko izena hartu zuen, Gerlari Kristal Horia zen. Eta hantxe geratu zen, leize-zuloan dragoiarekin batera bizitzen. Handik aurrerakoak dragoiak ditu kontagai, eta niri ez dit oraindik ezer esan.

Axun Gereka



Ixaro Borda

<< idazteak bizi nau eta bizitzak idazten nau >>

kantu bat zuretzat, Itxaro!

Bere esperientzia kontatzeko irrikitan, Itxaro Bordaren irria iritsi zitzaigun iazko abenduaren hasieran Bergarako Idazle Eskolara, eta Durangoko Azokaren ataritan elkarrizketa hau izan genuen, zintzotasunez eta bihotzez.

>> Idazten hasi zinen garaietara joango gara. 12 urterekin aurkitu omen zenuen literatura. Nolakoa zen orduko Itxaro, zerk bultzatu zuen idaztera?

Hamabi urtetan hizkuntza bat berraurkitu nuen, literatura lehentxeago atzeman nuen, ordurako poesia mukizu batzuk idazten nituelako jadanik frantsesez. Hizkuntza, erran nahi dut euskara eta ordutik euskara landu dut etengabe, orain ene idazteko mintzaira dela aitor dezakedalarik. Garai haietan oso gazte isila eta bakartia nintzen, introbertitua nolabait eta idaztea zen enetzat adierazteko bide bakarra.

>> Oragarre, Paue, Paris, Maule, Baiona... bizileku asko izan dituzu. Zure nomada izaera aitortu duzu. Leku aldaketa hauek zure literatura elikatu al dute?

Bai noski, leku askotan bizitzeak ase du ene literatura gosetia. Leku guztietako paisaiak eta giroak sartu ditut testuetan, gehienbat Amaia Ezpeldoien sailean Paris eta Maule azaltzen direla, azken nobelan Baiona eta Bilbo haluzinatua azaltzen diren arren. Literatur zaletasunak noranahi segitu nau eta beti iruditu zait, salbatzen ninduela, nomada libre egoera horretan, ene baitako ariadnaren haria bezala zela. Hala izaten jarraitzen du.

>> Eta postari lanak, badu funtziorik edo eraginik zure idazketan?

Lanak ere bai badu eraginik idazten ditudan testuetan, batetik denboraren aldetik eta bestetik gaien partetik. Laneko egoera asko aipatzen ditut, ene pertsonaiak lanean ari dira eta behe mailako lanetan batez ere: nekazari, langile arrunt, langabetu, etxegabe etab. Postari izateak azkenik bizibidea, beraz idazteko liber-

tatea segurtatzen dit, batzutan nazkagarri zaidan arren, testu baten uztea eta lanera joatea.

>> Eleberria, poesia, itzulpena, kantagintza, saiakera. Literaturaren alor ugari landu dituzu. Landu nahi zenukeen beste generorik baduzu? Nobela historikoa? Zuk historia ikasketak egin dituzu?

Gehienbat eleberria eta olerkigintza landu ditut, saiakera noiztenka, artikulugintza ardua. Gustatzen zait formatuen aniztasuna, zenbaitetan testu luzeak egitea, beste batzutan bi mila karakteretakoa. Nahikoa ezinegona naiz eta neurritz kanbiatzea, gaiez bezala, maite dut. Kantarientzat idazteak loriatzen nau, musikak pasionatzen nauelako eta agian musikagile frustratu bat naizelako. Historia ikasi nuen eta ez dut baitezpada nobela historikoaren generoa jorratzearen beharrik, ene nobelak aski historikoak direlako. Historizatzen ditut gertakariak eta egoerak, urte, leku eta mende zehaztetakoak dira.

>> Irakurle obsesionatua zara. Hizkuntza bat ikasi zenuen hizkuntza jakin horretan idazten zuten autore batzuk irakurri ahal izateko. Zer ematen dizu irakurketak?

Bai, nahiz eta azken urteotan gure klasikoak berrirakurtzeari ekiten diodan gehienbat. Hizkuntza baten ikastea enetzat, goizero hogeita hamar minutuz, zoramen bat da. Halatan grekerara hurbildu nintzen, Greziako antzerki eta testu zaharrak hizkuntza horretan dastatzeko eta ondotik alemanerari uztartu nintzaion, Rheins haraindiko poeta erraldoiak alemaneraz irakurtzeko. Orain korsikeraz jabetzeko gogoz nago, ez dakit astia ukanen dudan, ordea. Baina saiatuko naiz.

>> **Eta idaztea nola bizi duzu?**

Idazteak bizi nau eta bizitzak idazten nau. Enezat hartzen dudan hatsa bezain garrantzitsua da idaztea. Iruditzen zait bizitzan ez dudala besterik egin, idatzi, idatzi, behin duela hogeitau urte alaba bat munduratu eta berriz idatzi.

>> **Ironia eta ezkortasuna dira zure literaturaren ezaugarrietako bi. Zenbateraino eragin du zure inguruneak estilo hori markatzen?**

Ironia bai, irri eginarazteko egoerak asmatu ditut. Uste dut, ezkortasunarekin batera, hori iparraldeko literaturaren ezaugarrietarik bat dela. Eta ez da ezkortasun soila, ingurunea ez dugu bereziki alai eta horrek testuen edukia baldintzatzen duke. Luzaz pentsatu dut urgentziaz idazten nuela, bihar bertan hizkuntzarekin batera desagertu banintza bezala. Gaurkoan, muga urrunago dudala nabaritzen eta agian orain dut muga hura hurbilen. Ez dakit.

>> **Maiatz aldizkariaren sorreraren lekuko izan zinen. Orain argizaiola saria emango diozte taldeari. Nola hartzen duzue sari hau?**

Sari hau hogeita bost urteko etengabeko lan baten onarpenaren ikur bezala hartu dugu, abentura kolektibo gatazkatsu eta eder baten lekuko gisa. Maiatz aldizkariaren sorreran nengoen eta kasik zenbaki guztietan agertzen dira bereziki Maiatzentzat izkiriaturikoak. Itzulpen asko egin dut aldizkariaren aitzakiaz, ikerketa literario zenbait, bai eta literatura hutsa ere.

>> **Maiatzek hasiera hartan zituen helburuak bete al ditu?**

Bai, bete ditu. Eta helburu haiek betetzen jarraitzeko asmoa dugu, hau da laborategi edo plaza bat izaten, hasi berriak edo argitaletxerik aurkitzen ez duten idazleentzat. Halaber idazlearen izaera bermatzen, iparraldean bederen literatura idazlea ardura debaldetzat hartu delako. Maiatzi esker, iparraldeko luma erabiltzaileek ere, hegoaldekoen antzera, idazlea naiz erratera ausartu daitezke eta hori ez da gutxi.



Ainara Maia eta Itxaro Borda.

“Garai haietan oso gazte isila eta bakartia nintzen, introbertitua nolabait eta idaztea zen enezat adierazteko bide bakarra”.

>> **Zer eman dio honek Euskal Herriari eta batez ere Iparraldeari?**

Hori, idazlearen figura indartzea eta azkenean, dirurik ematen ez duen arren, seriooki kontsideratzea. Euskal Herriko literatura esparru globalean, bestela desagertuko edo zaharkerietan kokaturik geratuko zen iparraldeko litera-



turarekin kontatu behar delako aldarria. Mayi Pelot, Anton Luku edo Piarres Aintziart norke ezagutuko zituen, Maiatzek ez balitu irakurleengana helarazi?

>> Maiatzen ez ezik, Seaska, Iparraldeko ikastolen elkartean ere buru-belarri aritu zara. Behin bustiz gero hezurretaraino bustitzen den horietakoa al zara?

Bai, halakoa nintzen. Baina 2000. urtean kanpoa eman zidaten eta geroztik bustitzeko partez, aterpean geratzen naiz. Ez dut bilkura bakar batean parte hartu eta %100 Basque nobelari azaltzen diren garai haietako bilkura ondoko zailtasun fikziozuek geroztik, egiazki iparraldeko kultura mundutik bazter nago, kanpo orobat, ene mintzatzeko ahala berreskuraturik.

>> Iparraldea, hegoaldea. Idazle bezala, nola bizi duzu muga hori?

Enetzat, kontrolik ez denean frontera, mu-

garik ez da. Maite dut mugaren bi aldeetan ibiltzea, mintzaldi edo poesia irakurraldi bat dela. Azken oporretan sei egunez oinez ibili naiz Bizkaiko kostan eta oroitzapen iluminatua daukat. Gero egia da, erabiltzen dudana hizkuntzaren lokalizazioaren zaintzea gustatzen zaidala, gure etxeko eleak erabiliz, doinuak, idazlea naizen arren; beraz, erabat indibidualista, kolektibo baten ondorengo sentitzen naizelako. Hizkuntza partikularraren bidez sortzen da irakurle partikularrarekiko lotura. Mintzairaren batzea, literaturan bederen, ez da ene xedeetan sartzen.

>> Beste proiekturik baduzu buruan?

Proiektuak badituz beti, izpiritua alha dabilkit taigabe. 2007an *Jalgi Hadi Plazara* eta *Noiztenka* poesia bildumak plazaratu nituen eta orain gogoetan pasatzen dut denbora, lan luzeago batera bultza nazakeen sugar baten aiduru bezala.

“Bizitzaren big bang baten antzekoa zait momentua eta ez diot inoiz uko eginen, puntu horretan baitatza poesia ere”

>> Elkarrizketa asko egin dizute, baina zer galdetuko zenioke elkarrizketatzaileari?

Eskatuko nioke ea elkarrizketa gogoz ala beharturik egiten didan. Gertatzen zait batzutan, kazetari aspertuekin solasaldiak irutea eta sentitzen dut batetik ene aurrean bortxaz bezala dagoela eta bestetik ni ere ez nago ondo: orduan ene burua masakratzen dut, oso ona naiz horretan.

>> Zer da zuretzat maitemintzea? Eta enamoratzea?

Enetzat berdin dira biak, enamoratzea maitemintzearen lehen urratsa litekeelarik. Adiskide eme batzuek distantzia gehiagorekin ibiltzea aholkatzen didaten arren, zuhurak baitira berak, esperientziadunak, beti gustatuko zait begi kliska batez enamoratzeke une berezi hori, magikoa zait, amodiozko istorioak gero deboleketan bukatzen baldin bazaizkit ere. Bizitzaren big bang baten antzekoa zait momentua eta ez diot inoiz uko eginen, puntu horretan baitatza poesia ere.

>> Zein da zure unibertsoa? Eta zein doinu jartzen diozu zure unibertso horri?

Ene unibertsoa zein den? Lurraren pare, irekia, pairatua, bozkarioz eta edertasunez betea. Bidaietan bezala, egunero hiruzpalau gauza ikasten ditudala, garatzen doa ene unibertsoa eta gainera adinean joanago eta hesi ideologiko gutxiago daukadala konturatzen naiz, unibertso horren dastatzeko, haztatzeko, eskuratzeke, hortaz jabetzeko. Ongi azkenean, norberarengan sinestea, hori baizik ez, eta ez munduaren ikuskera mugatzen diguten fede, anaitema eta sasi-sinesteetan.

“Uste dut galtzearen metodoa barneratzearekin, guharen higamenaren onartzeko prestatzen garela eta hori da bizitza baten helburua, jakitea zerk mantentzen gaituen zutik, eta ez da milaka gauza!”

>> IZAN ZITEKEENA

EZ DA IZAN ZENA;

IZAN ZENA

EZ DA DENA;

DENA

EZ DA IZANEN DENA;

DENA EZ DA DENA! Ala?

Hori guztia aldi berean eta alderantziz, ezta?

>> Eta lapurrari ilargia leihoan ahanzi ziztzaion... zer?

Lapurrari beti zer bait ahanzten zaio, maiteminduari bezala. Hobe azkenean, ez baitu lapurrak ilargiaren beharrik, gutxirekin bizitzen ikastekoa du, guk bezala.

>> Galtzea metodo kontua al da?

Gure gizarteetan irabaztea metodo balios gisa aurkeztua denean, galtzeak ez du fama onik. Alta, bizitza osoan galtzen baizik ez dugu: indarrak, kemenak, maitaleak, gurasoak hiltzen direnean. Uste dut galtzearen metodoa barneratzearekin, guharen higamenaren onartzeko prestatzen garela eta hori da bizitza baten helburua, jakitea zerk mantentzen gaituen zutik, eta ez da milaka gauza!

>> Barren-barrengo orrialdeak nola dituzu: orden batean loturik ala paper solteetan banaturik?

Paper solteetan banaturik bistan dena, paper solte horien kopiak orain bi USB giltzetan dauzkadalarik. Baina memoria ona dut, momentuko bederen eta badakit non ditudan orrialdeak gerora landu nahi ditudalarik.

"Behin lanetik etxera nentorrela pentsatzen ari nintzen, Capbretoneko hilketa gogoan nuela, baduela kasik berrogei urte gure herria gerla itsu eta elkor batek larrutzen duela eta nik amodiozko poemak baizik ez nituela idatzi."



>> Zuretzako amodiozko kantarik ederrena zein da?

Sinead O'Connoren *Emma's Song*. Nihaurk ere amodiozko kanta 'eder' asko idatzi dut, euskal kantariak eskaintzen dituztenak. Behin lanetik etxera nentorrela pentsatzen ari nintzen, Capbretoneko hilketa gogoan nuela, baduela kasik berrogei urte gure herria gerla itsu eta elkor batek larrutzen duela eta nik amodiozko poemak baizik ez nituela idatzi.


>> Zergatik hitz hauek?

Emazte batek emazte bati samurtasunez eskaintzen dizkion hitzak direlako, Sinead O'Connoren ahotsaren fanatikoa naizelako, besteak beste, Madonna, Kd Lang eta Janis Joplin ikaragarri maite baititut halaber.

>> Beste bat...zer, zugabe (alemanez)?

Ja natürlich Zugabe in Deutsch: Madonnaren Ray of Light, Mirwaisen konponketekin. Glücklich, habe ich deutsch ein bisschen gelernt zu deinen Fragen antworten können. Nicht wahr?

Ainara Maia Urroz



itxaropenezko olerkia

Kantu bat zuretzat,
 Itxaro!
 Kantu leun baten gisa
 Esperantza!
 Eta bizitza nola ere badoan
 Automata baten gisa
 Bihotzaren ordezt
 Krokodiloa
 Maitasunez
Just love!
Maiatzen egin duzu kuku
 Baina udaran betaurreko beltzekin ibilki zara
 Denari so
 Orain zu ez zara mutu
 Eta XX. mendeko kaieratan
 Aukera izan duzu
 Ni, berriz, hautsak errautsak bezain
 Grisa nauzu
 Zeruetako erresumako ortzadarra amets
 Baionako Basilika lurreko errealitate
 Eta bakean ützi arte
 Ez dut amorezko pena baino
 Bertze gauzarik izanen.
 Jalgi zinen plazara behin
 Eta jalgi hadi orain ere
 Zure %100 basque
 Basque poesie gehiagoren egarri bainaiz
Ai, Maiatz!
 Zure Itxaropenaren irria
 Durangoko neguko ataritan hormaturik.

Ainara Maia Urroz

UNED-Bergara

UNED

BERGARA



Lizentziaturak
Diplomaturak
Injinerutzak
Doktoretza ikastaroak

Graduondokoak
Aratu gabeko ikastaroak
Hizkuntzak
Berezko ikastaroak

IKASLE BERRIENTZAT AURREINSKRIPZIO EPEA: **ekainaren 16tik aurrera**
MATRIKULA EPEA: **irailaren 17tik urriaren 31ra bitartean**

UNED

BERGARA

Informazioa:

UNED. Martin Agirre Pl., 4.

20570 Bergara

Tel. 943 76 90 33

info@bergara.uned.es

www.uned.es/ca-bergara

Egunerokotasunari aurre egiteko dekalogoia

- Ausart zaitez gauza berriak probatzen, aurrera joateko modu bakarra izango baita.
- Ez utzi biharko gaur egitea daukazuna, biharko eguna ez baita-kizu nolakoa izango den.
- Ez izan beldurrik huts egiteari, oraindik zerbaite ikasteko aukera duzu eta.
- Ikasi zure buruarekin ondo egoten, bakardadea ez sentitzeko modu bakarra da eta.
- Maitatu aldamenekoak, besteei esker baikara, besteengan bizirik irauten baitugu.
- Irribarre egin etengabe, besteak alaitu eta zeuk zimur gutxiago izango dituzu eta.
- Erne egon zure inguruan gertatzen denari, unibertso-sistema baten atomoak baikara.
- Ez bizi presaka, bizitzak aurrera egingo baitu berdin-berdin.
- Bizi aurrera begira, eta atzera begiratu bakarrik ahanzten bazaituz bizia nondik datorkizun.
- Itxaropentsu egon, bizitzak beti eskainiko baitizu nahi duzuna, nahi duzun une zehatzean ez bada ere.

Carmen Valois

Zoo·ilogikoa da Idazle Eskola (agertoki ilogikoagoak ere badira, zenbat gura):

Tintaberoak eta tinta hotzekoak, Zorrozkailu-moko luzedunak edo labur edo oker edo kamusdunak, bolalumaje koloretsudunak, betaurrekodun arrain bertigozaleak, paper gainean arrastaka sugeak, ahuntzaren gauerdiko eztula ezertarako balio idazteak, arkatzarekin zainak arrakalatzen suizidak...

Orri-jaleak, ideiarpariak, belorri txuriak eta koadrodunak marjinabako zorri pila beteak (lot of sorry's jumping in their heads), bizkarzorriak, mahaitodonteak, elefaulkiak, krokoadernoak, lehoi nabarbelak... Denetarik.

Sartu, sartu eta irakurri, gozatu zoo·ilogikoaz. Faunakoen testuak dira bisita-txartelak.

zoo·ilogikoa

Ekaitz Goienetxea

Tolesaldiak edo berbabilduak edo erorriak (edo bakoitzak jar diezaiola nahi duen izena)

Honako jolas honekin, burua gehiegi estutu gabe idatzi eta ustegabeko emaitzak lortzen dira. Gutxienez bi lagun behar dira; hortik gora, nahi haina parte-hartzailek jolas dezakete. Behar den bakarra, bolaluma bat edo arkatz bat, eta orri bat (tabernetako mahai-zapien tamainakoak dira egokienak). Has gaitezen:

- 1 - Jokalari bakoitzak esaldi bat idatziko du, edozein, bat-batean bururatzen zaion hori. Besteek ez dezatela ikusi zer ari den idazten.
- 2 - Esaldiko azken berba esaldiaren azpiko lerroan idatziko du, bakartuta. Ondoren, orria tolestu egin behar da, esalia ezkutatu eta berba bakartua bakarrik ikusteko moduan.
- 3 - Berba solte hori hurrengo jokalariaen abiapuntua izango da beste esaldi bat idazteko, di-da. Eta berriro, orria tolestu, esaldia ezkutatu eta beste berba bat utzi beharko da agerian.
- 4 - Horrela, jokalariz jokalaria, orri osoa esaldi tolestuz bete arte. Orduan, testu bakar modura irakurri idatzitakoa eta gozatu emaitza ero horrekin.
- 5 - Baietz beste orri bat betetzeari ekin...

DALAI LAMAREN TEST-A: NOLAKOA ZAREN DESKUBRITZEKO AUKERA

HASI BAINO LEHEN DESIO BAT ESKATU BEHAR DUZU.

Orain, arkatza hartu eta emaitzak idatzi. Ez ezazu tranparik egin eta pazientziaz hartu, lau galdera besterik ez dira eta!

ANIMALIA HAUEK ORDENATU GOGOKO DUZUNETIK HASITA:

- Kolibria
- Zaldia
- Tximeleta
- Txakurra
- Txoria


HITZ BATEZ DESKRIBATU ONDORENGO ANIMALIAK:

- Txakurra
- Katua
- Arratoia
- Kafea
- Itsasoa

GOGOAN IZAN ZURETZAT GARRANTZIA DUTEN PERTSONAK eta BAKOITZARI KOLORE BAKAR BAT EMAN:

- Horia
- Laranja
- Gorria
- Zuria
- Berdea

AUKERATU GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN ASTEKO EGUNA:



emaitzak

ZURE LEHENTASUNAK HORRELA DEFINITZEN DIRA:

- Kolibria: lana
- Zaldia: harrotasuna
- Tximeleta: maitasuna
- Txakurra: familia
- Txoria: dirua

EGINDAKO DESKRIBAPENAKESAN NAHI DU:

- Txakurra: zure nortasuna
- Katua: zure bikotekidearena
- Arratoia: zure etsaiena
- Kafea: sexoa nola interpretatzen duzun
- Itsasoa: zure bizitza

AUKERATUTAKO KOLOREEN ARABERA:

- Horia: ahaztuko ez duzun pertsona
- Laranja: zure benetako laguna
- Gorria: zinez maite duzun pertsona
- Zuria: zure arima bikia
- Berdea: zure bitzitza osoan gogoan izango duzun pertsona.

EGOKITU AL ZAIZU? ADOS AL ZAUDE LORTUTAKO EMAITZEKIN? HORRELA BADA, GOGOAN IZAN ESKATUTAKO DESIOA AUKERATUTAKO EGUNEAN BETEKO DELA.

HALA BEDI!

EMAITZEI ERREPARATU BAINO LEHEN ERREPIKATU ZURE DESIOA. ORAIN ADI EGON

Juaristi & Valois

ZELEPELE *ene hiztegia*

Gosez hasiko gara, aseztu joan gaitzen: baietz asmatu patata **arrautzopila** zer den?

Ba prestatzen hasteko, **arasatik** hartuko ditugu zartagina, **bitsadera** eta platerak.

Belarri luzeak dauzkalako deritzo: **Belarluze**. Baina I 000-i 000-rik ez: Kurrin-kurrin.

Kontuz iparraldeko ostatuan plater bat **beterraba** eskatzean: erremolatxa dakartzue eta!

(**Deblauki** diotsut gainera. Hau da: zalantzarik gabe).

Deutschland-etik datorrenarentzat du euskarak: **doixtar**. Eta bere elearentzat: **doitxera**.

Nahiz eta (edota horrexegatik?) Edenetik etorri, **edentsua** da pozoitsua.

Gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea da **ertia**. Eta idazle eskolako ikasleok gara hortaz: artistak edo **ertilariak**.

Fauna ederra hala ere, baina ez bat ere **faunak** edo funts gutxikoak.

Eta zuek ba al zenekiten, hostoen hizkuntza edo hotsari esaten zaiola, **firfira**?

Animalia bera izan arren, nik nahiago **gauenara** izan, saguzar baino.

Alda dezagun pankartetako bakera **gentza** baliokideagatik, ea behingoz lortzen dugun!

Hedeak dira oinetako lokarriak, baina **hedexuriak**, Frantziako jendarmeak.

Gutxik dakigu, Santimamiñeko bufaloei, **idiaketz** deritzala euskarak.

Greziarren Bibliak (=liburuak) edo **Idazteunak** balio literario handia omen du.

Bolivar Ameriketako **jaregilearen** arbasoak XVI. mendean partitu ziren Bizkaitik.

Julufraia bat dut, Maribelentzako, ezkontzen denean, emango diot.

Errauskineren gurdia **kuia** bihurtu zen. Eta zaldi **kirmen** edo leialak, sagu.

Insignis lerra da gure basoetako arbola ohikoena. Bere ezau-garrietako bat, erretxina gutxiduna izatea da, baina duen hori, gainerako zuhaitzena bezain **lir-dingatsua** da.

Politikariak beti politikari, guri **maula sartu** nahian, inozoak izango bagina moduan.

Sagardotegietako **mahai azkenak**, gazta eta irasagarra, nire gogoenak.

Nabarra gurea, beti horren **nabarra**: paisaietan zein kulturetan.

Naroak **naroro** banatzen zuen maitasuna, diruaren truk.

Odol gorritz ureztatuta ere, beti orlegi ageri, ortuko **odoldi**.

Ohakoan dena ikasten, nekez da gero ahazten. (esr. zah.).

Badator berriz inozo hau pentsatu zuen oilaskoak, gizona oilategira **purra** esanaz sartzerakoan.

o
b
c
c
d
e
f
g
h
i
j
k
l
l
m
n
ñ
o
p
o
p
q
r
s
t
u
v
w
x
y
z

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

Ordubete beranduago, **paderan** frijitzen ari zen, oilasko inuzentea.

Sorkia da etxean soilik entzun izan dudana hitzetako bat, baina hiztegiak badakar: oihala.

Ez da euskaldunon jainko bat, ezta swahilien mendi sakratua ere: kanoia euskaraz, **sutunpa**.

Zozoak beleari ipurbeltz, **txortxorka** diotso.

Salduko al lirateke angulak horren garesti, afixetan **txitxardinak** ekarriko balu?

Eta hirugarren bat tx-dunak gogoenak izanagatik: mozkorturik behar zuen tximeletak, **txiribiri** deitu zutenean.

Urtxintxak, arbola gainera igo, eta **urtzintz** edo doministiku eginez lortzen zuen hur guztiak lurrera botatzea.

Ez dira frutak **urlia** eta sandia, gure fulano eta mengano baizik.

Xinaurriak xifriturik zeuden, urak inurritegia hartu zuela ikusita.

Eta bukatzeko, z-tas hasten den, **ZELEPELE**, hiztegia esateko beste modu bat.

Hiztegiak berez ez dakar, nik asmatua baita. Baina arkatzez gehitu dut.

Izan ere, bakoitzak bere hiztegia izan behar du, eta Zelepelea da neurea.

Zuk ezagutzen al dituzu jada zure hitz maiteenak?

Zain itzazu!

Andoni Etxeberria



astoa

*Astoak bakarrik
bihotza du hilik.*

*Itxituratik aterata
lagun bila,
artaldean sartu da
astoa.
ardiak urduri
sakabanatu dira,
ez dute arrotza ezagutu
astoa.*

*Pozik, atzetik ditu
jarraitu,
iletik tiratu,
ipurdian hoska egin eta
hanka artean zapaldu,
astoak.*

Miren Juaristi

tabako kartoietan idatzitako testamentua

Zorionak, txo! erraten ziguten denek.
Gaur zu eta biok gaude,
bakarrik.
Ardo mikaztua eta ginebra kiratsa,
xanpainaren eta Mariak prestatzen zuen tartaren
suzedaneo tristea.

Zerua urratu eta eguzkia ukitu nahi,
baina hatzak kiskali genituen,
banan-banan.
Erremina sendatzeko, begiak itxi
eta hartzazu,
hartzazu beste bat.

Ausartegia izan nintzen (nire) zure
ilusioak ur marroien artean
estoldaratzeko.
Koldarregia, akaso,
koldarregi, (zure) nire hilarria
onartzeko.

Zorionak, txo. Barka nazazu, faborez,
zu zinena ez bainaiz ni,
naizen honekin erail zaitudalako.



Jon Orzaiz Galarza



txantxangorria

Intxaur arbola lehortuan
txantxangorria, txikia
kabitik atera berria,
paparrean luma berritzen
kolore gorria zaio sumatzen.
Suaren indarrez
badaki abesten,
asmatuko ote du kantuak
zuhaitza esnatzen?

Miren Juaristi

galdera-erantzunak

Ba al da txorien kantua bezain gauza ederrik?
Bai, urrutiko haurren jolasaren zurrumurrua.
Eta behe lainoa bezain gauza misteriozurik?
Egunero beltzez jantzita doan emakumea.
Eta arrosaren usaina berdindu dezakeenik?
Izkinako okindegiari dariona, goizeko orduetan.
Eta bada zelai berdean loreek eskaintzen duten kolorea
bezain bizirik?
Bai, hiriko argiek gauari ematen diotena.

udaberri negutua

Egunak DIDA batean pasatzen dira
eta ohartzerako udaberrian gaude,
baina ni neguan...

Negu minean nago oraindik
udaberriko hego haizearekin dantzan,
zorabiaturik,
ohartu gabe jada udaberrian gaudela
ohartu gabe atzoko eguna gaur dela
DIDA batean!

Egunak DIDA batean igarotzen dira
eta uneoro zure isiltasunaren zergatia ulertu nahian,
ohartu gabe, beharbada, ezerk ez duela zergatirik
ohartu gabe, beharbada, dena igarotzen dela halabeharrez
DIDA batean!

Egunak DIDA batean igarotzen dira
eta neure bizitzeko arrazoia zure hutsunearen mina zergatik dudan jakitea da,
ohartu gabe, beharbada, ez dagoela arrazoirik.
Baina ni, hala ere, gauza galdu guztien arrazoiak bila segituko dut,
eta zu ulertzen saiatu...
Udaberriko euria, udako elurra, udazkeneko lorea eta neguko sargoria
ulertzen dudan gisa
ulertzen zaitut.



poeta!

Bakarrik eta enoratua sentitzen bazara ere,
eta zure ez-ulertuaren gogoa fusilatzen badute ere,
—beruna jasan duen tigrea bezala—
indartsuago ekin iezaiozu.

Oroit, itzalaren baitan babestu den izarra desegin dela;
diruak ere ez du gozatutakoa erosten,
eta IZATEA baino gozamen sakonagorik
ere ez dago.

Zure sentipenak,
deslotutako mundu antzu baten aitzinean
ernaldutako zuhaitza bezala,
gorrotoaren aizkorakadak desafiatu ditu,
eta ez da sekulan ere zure sentipena zapaldua sentituko;
maiteminduaren bertsoaren argitan —sutan!—
ez du ez urreak ez eta ahanzturak ere itzaltzen.

Ainara Maia Urroz

abisua

Etortzeko esan zidan. Han behar nuela izan arratsaldeko bostetan. Argia ezkututzen denerako berean behar nuela izan. Ordua iritsia zela, ez nuela aitzakiarik, ezin niola hutsik egin, PATUA bera ari zitzaidala hizketan eta alferrik nebilela ihesean.

Maindireari tira eginez, buelta erdi eman nuen ohean.

hau da sinismenaren misterioa

ezer ulertzen ez denean norbera libre da nahi duena ulertzeko.

Itzal nazazue eta bizi,

-ahal baduzue behintzat-
esan zuen telebistak.



mugakook

Mugan bizi garenok barrura begiratzen dugu, baina,

begi ertzetan ageri da bestaldea.

Eta haren lilura.

Mundu berria, arrotza, traidorea.

Mugan bizi garenok noizik eta behinean mugaz bestaldean bizi direnen begi niniak ikusten ditugula egiten dugu amets, zuhaitz adasken artetik. Beltzak dira, diztiratsuak agian.

Mugan bizi garenok gorputza erdi arrotz, erdi hotz sentitzen dugu;

Erdia baino ez bagina bezala, mugako.

Mugan bizi garenoi ere, bestaldetik datorren haizeak ilea orraztu egiten digu.

Eta entzuten ditugu bestaldeko jaietako iji eta ajak.

Mugan bizi garenok ezezagunaren begi niniak ikusten ditugu mugaz bestaldean, eta neba-arrebenak sentitzen bizkarrean.



Alaitz Vives

hondartzan

Eguzkiak belauntzia piztu egin du hodeiertzean, kandela zuria bezala.

Takoidun zapatak ez dira erosoak hondarretan.

Ezin goizez jakin haiek hondartzara ekarriko nindutenik, ez eta ilunabarrean itsasoak berdinduko nauenik.

Eguzkiak hondar bustian margotzen duen suzko bidea gurutzatu du oin hutsik korrika doan emakumeak.

Neguko haize hotzak eguzkiari ospa egiteko esan dio.

Arrantzaleak kainabera hondarretan anklatu du itsas goraren zain.

Zer arrantzatzen duen galdetu nahi diot; takoidun oinetakoak ez direla egokiak hondarretan ibiltzeko esan dit berak.

Itsasertzean oinez, nekez,

Noiz buelta eman amaierarik gabeko hondartzan?

Nola gelditu,

ze hondar metro kuadro gainean eseri naiteke deskantsatzera?



Zeri egiten ote diote ihes hodeiek?
Zein da, hodei guztien harrera-herria...

Nik uste dut, herrialde altu bat izango dela.
Haizea bukatzen den munduko herririk garaiena.
Bertako mendien magalean paratuko dira hodeiak.
Eta herrialde hori zuria izango da.

Gaur badakit non dagoen Afrika.

Zizare suizida noraezean
aparkalekuko dantzalekuan.

Galdetu diot: "nora zoaz"?

Z-U-T-A-Z
E-L-I-K-A-T-Z-E-R-A

Andoni Etxeberria



Hilzorian zaudenean
maite nauzula esango didazu:
begietara begiratuz,
zure bi eskuekin nirea hartuz.

Ez dut ordura arte itxarongo.

Zoriontsu zen sagarra, bere osotasunean.
Erdibitu zenuen.
Zuritu.
Hazia bota.
Eta jan.

Gero, Evak utzi egin zaituela eta
kexatzeko adorea izango duzu!

Garestiak dira,
gazteriaren mostradoreko
beherapenak.

Zigilu bat itsatsi diot
zure helbidea zeraman adreilu bati.

Ezin dizut beste eskutizik bidali.

Gaur lehoi bat hurbildu zait ohera.
Argia itzali dudana arte ez nau jan.

Andoni Etxeberria



erroia

Parkean euliei *larariei* belarrira oihu egiten zien,
sugalindarei buruan kosk,
 saguei azkazalak eten
 Denek ihes egiten zuten
 eta bera zoriontsua zen.

Etxean loroari *larari* lumak erretzen zizkion,
 arrainari tripak hautsi,
 txakurrari belarria jan,
 denek negar egiten zuten,
 eta bera ezin zen zoriontsuago izan.

Ohean arrebari labari zuloa egin zion,
 amari *lalari* begiak atera,
 aitari *tralari* epelak eman,
 denek erroi egin zuten.
 Besteak ezin ziren zoriontsuago izan.



HEGoALDIAK

Ostrukak dabilzkit buruan hegan.

Begi-ninietako gatzagetan
 egin dituzte habiak
 eta negarrez itoko dira.

Baina bitartean
 buruan
 ostrukak hegan.

Amaia Artolazabal Amilleta



Maku Noriega

Gizona joan zait etxetik

Gizona joan zait etxetik.

Hainbat urte elkarrekin
eman ondoren, maleta hartu
eta badoala esan dit.

Itota sentitzen dela,
arnasa falta zaiola,
beste bide batzuk
jorratu nahi dituela,
askatasuna behar duela...
Zur eta lur geratu naiz.

Ez diot galdetu nondik
datorkion itomen hori,
zeintzuk diren jorratu
nahi dituen beste bide horiek,
ezta ea posible den askatasun
horren bila elkarrekin joatea ere...

Gizona joan zait etxetik...

KEINUAK

Maitasun gutun bat idatzi nahi nizuke.
Baina ez naiz, dagoeneko,
hitzak kateatu eta esaldiak borobiltzeko gauza.

Lore sorta bat oparitu nahi nizuke,
larrosa eta krabelinez betea,
udaberri heldu berriaren ikur.
Baina badakizu,
ureztatu ezean,
behiala lorategi emankor izana
belar txarren haztegi bilaka dezakeela
denboraren joanak.

Gainera,
beranduegi da.
Beranduegi, maitasun keinuei tartea egiteko.

Gorka Azkarate



KRISTALEZKOA

Hastapena urrun, oroimeneko zoko lanbrotsuenean;
berriro hastapen hartan bageunde gisara, ordea,
elkarri eskuetatik estu heldu,
eta aurrera egiteko gai garela sinetsi nahi dut.
Ez dut sinesten horrela, besterik gabe, etsiko dugunik.
Ez dut horrela etsiko dugunik sinetsi nahi.

Bagenekien ezinbestekoa zela geronen buruak
bideko arantzen ziztadak jasateko prestatzea.
Eta hala egin uste izan genuen.

Gure bihotzak kristalezkoak direla sinestarazi digu, ordea, patuak.
Eta kristalezkoa, gure artekoa.
Hauskorregia, aukeran, berunezko egunerokotasunaren aldean.



Hari mehe batetik zintzilik,
lurrera noiz eroriko zain dagoen
kristalezko bolatxoaren gisakoa, finean.

Uste baino lehenago heldu da
eskuak askatu eta indarrez erratza astintzeko garaia.
Alperrik da dagoeneko etsi nahi ez dugula sinestea.
Alperrik, etsiko ez dugula amestea.

Konturatzerako heldu baita,
zorua estaltzen duten milaka kristal zatitxoak
erratzaz biltzeko garaia.

Agian, baina, egunen batean,
zoru honetan bertan oin hutsik dantza egingo dugu berriro.

Gorka Azkarate



nola esan...?

Ez dakit zergatik uzten dugun bidean horrenbeste gauza.
Egin nahi ditugu, esan nahi ditugu, baina...
Konturatzeko...
orduak,
egunak,
urteak,
irristan joan zaizkigu.
Eta ez ditugu egin,
ez ditugu esan.


Egia da, hitzez ezin da dena esan.
Ez dago munduan,
barruan daukaguna adierazteko nahiko hitz.
Nola hustu zama hau? Energia hau?

Nola esango dizut gaur ez dudala jaiki nahi,
horizontal honetan gorde nahi dudala
neure burua,
neure gorputza.
Munduarengandik dibortziatu nahi dudala.
Ez niri hitz egiteko.
Ez inor nirekin akordatzeko.
Uzteko nire soiltasunean,
nire biluzian,
nire ezerezean.

Nola esango dizut gaur bizitzaren parte sentitzen naizela.
Inguruko guztiak besarkada batean estutu nahi zaituztedala,
muxu zaparradaz busti.
Naizena zuei zor dizuedala aldarrikatu.

Nola esango dizut beldur naizela,
batzuetan desberdin sentitzen naizela.
Zuek munduarekin bat egiten duzuen bitartean
ni zuengana ezin hurbildu sentitzen naizena.
Garrasi egin behar dudala.

Baina une horretan ito egiten naiz,
mututu.
Eta orduan hasten naiz idazten,
askatzen,
neure munduan bizitzen.



Itziar Gomez Sarasola



Gerezi gorri,
hain urtsu eta faltsu:
barruan hezurra.

Zergatik amaitzen da maitasuna?

Airean hatsa:
denok batzen gaituen
azken arnasa.

Egia eta gezurra,
aurpegi bikoak.

“Zenbat denbora da denbora?”

Egia eta gezurra,
biak daude gugan.

Norena da Mundua?
Nork erosi nahi du?
On eta txar guztiarekin?

Eta olatuen
apar zuria,
itsasoaren sakonean
beltz.

Maitatzea,
maitatua izatea,
bata zein bestea
geure izatea.

Hain berde eta heze,
isilik eta bake:
goroldioa.

Eguzki zuria eta beroa,
hodei artean
kukuka.

Maite dut
zure inperfekzioaren
perfekzioa.

Zenbat balio du bizitzak?
Zenbat ordainduko zenuke nigatik?
Zer emango nuke zugatik?

Eta zertarako poesia?
Dauka gulako gabezia?



Itziar Gomez Sarasola

MAILUAREN ODOLA

(Erresuma eta Fedea 1)

EPALTZA, Aingeru

Donostia: Elkar, 2006



AKZIOAZ, ABENTURAZ ETA HISTORIAZ gozatzeko gogo duenak, horretarako parada ezin hobe izango du *Mailuaren odola* Aingeru Epaltzaren (Iruñea, 1960) eleberria irakurriz. *Erresuma eta Fedea* izenburua duen trilogiaren aurreneko liburua da *Mailuaren odola*. XVI-XVII. mendeetako Nafarroan girotzen den nobela historiko baten aurrean gaude. Euskal Herriko historiaren garai interesgarria eta erabakigarria izan zen hura: ikuspegi politikotik, Nafarroako erresumaren bukaera; hizkuntzaren ikuspegitik, euskal literatura jasoaren sorrera; eta erlijioaren aldetik, Nafarroako errege-erreginek erreforma kalbinista bultzatu zuten sasoa.

Egoera horren erdian bi pertsonaia kokatu ditu idazleak: bata, fikziozkoa, Joanes Mailu—Nafarroako errege-erreginen odoleko sasikoa, eta erresumaren eta erlijio kalbinistaren defendatzaile sutsua, “*Erregea eta Fedea!*” zintzotasunez oihukatzen duena—; bestea, erreala, Pedro Agerre *Axular* apaiz katolikoa eta euskal idazlea. Bien arteko lotura: *Jesus Christ gure launaren Testamentu berria* liburua.

Bi pertsonaia horien inguruan antolatzen da *Mailuaren odola*. Joanes Mailuk bere aurrekoen eta bere bizitza kontatzen ditu, hamaika gertakariaren testuinguruan: Nafarroa gaztelarren eskuetan erortzea, Nafarroa Beheretik erresuma osoa berreskuratzeko ahaleginak, erresumako nobleak, higanotak, erlijio gerrak, Itun Berria euskarara itzultzeko euskal idazleen bilerak... Axularren garrantzia askozaz txikiagoa da—hiru kapitulu laburretan soilik azaltzen da—, behar bada trilogiaren beste bi ataletan protagonismo gehiago emango diolako egileak.

Gertakariok ongi girotuta eta deskribatuta daude, eta Euskal Herriaren historiaren garai erabakigarri batez jabetzeko aukera eskaintzen dute.

Zentzu horretan azpimarragarria da nobela idazteko egileak egin behar izan duen dokumentazio lana; fikzioa eta errealtatea nahasten badira ere eta protagonista nagusia fikziozkoa bada ere, egiazko historiaren datu ugari erabiltzen du Epaltzak, eta horregatik esan dezakegu benetako nobela historikoaren aurrean gaudela, gertaerak garai historiko batean kokatuak izateaz gain, testuinguru historikoak garrantzi handia duelako. Pertsonaia historikoen artean presentzia nabarmena dute, besteak beste, Nafarroako erregin erreginak—Katalina Foixkoa eta Joanes Albretekoa, Henrike II.a Albretekoa eta Margarita Valoiskoa, Joana III.a Albretekoa eta Antonio Borboikoa, Henrike III.a Borboikoa...— eta Erreformaren doktrina euskaraz jartzeko biltzen diren euskal idazle eta ministro kalbindarrak—Joanes Leizarraga, Joanes Etxeberri, Tartas...

Bi plano narratiborekin jokatzeko du egileak: Joanes Mailuk lehen pertsonan kontatzen ditu beraren eta bere aurrekoen bizipenak; Axularren nondik norakoak, ordea, hirugarren pertsonan adierazten dira. Bereizketa hori era grafikoan ere azaltzen da, bataren eta bestearen gorabeherak grafia ezberdinaz idatzita baitaude.

Ezin dira utzi aipatu gabe hizkuntzaren edertasuna—metaforak, konparazioak...—ezta aberastasuna ere: nafarrerako hitz ugari, lexiko oparoa, aipuak...

Laburbilduz, istorioa eta historia nahasten diren nobela baten aurrean gaude; egileak berak elkarrizketa batean adierazi zuen bezala, *Mailuaren odola* irakurriz “abenturak maite dituenak izango du non ase bere gogo, gogoeta maite duenak ere bai”.

Jon Urutxurtu



KARLOS LINAZASOROREN LANAREN GAINEN GOGOETA LABURRA

fantasiatzko herria da *Altzeta*, baina kokapen oso zehatza daukela eman dezakeena: Berastegi eta Leitza artean, Urtoko mendatetik gertu, Plazaola-ko trenbide zaharraren ibilbidean (Andoain-Iruñea ibilbidea). Hain zuzen ere, trenbide hau erai-ki beharraren aitzakian hazi den herria da *Altzeta*, nekazal eremu batean kokatua, baina meatze-ak ere bertan dituen. Nostalgia kutsua dario li-
buru honi, neurri batean; haseratik bukaerara ga-
rai bateko gertakariak irudikatzeko Linazasorok
azaltzen duen maisutasunak, baina, harribitxi bi-
lakatzen du liburu hau: altxor txiki bat, finean.

Linazasororen lanik gehienak, baina, *Altzeta* maisulanak lantzen duen estiloarengandik ezber-
din samarrak dira. Idazleak gustuko du oso ipuin
harrigarriak sortzea, irakurlea harrizko dutenak,
gai ilunak landuko dituztenak eta amaieran se-
kulako ustegabeak gordetzen dituztenak. Horren
adibide dira, esaterako, *Itoko dira berriak*, *Zer ger-
ta ere*, *Bestiarioak*, edo, neurri batean, baita *Eldar-
nioak* ere. Pertsonaiak muturreko egoerataraz bul-
tztatzen maisua da Linazasoro, baita kasualitatea,
absurdoa, umore beltza eta gordintasuna dosi
neurtuetan nahasten ere.

Benetan aipagarria eta txundigarria da, nire iri-
tziko, *Zer gerta ere* lan gogoangarriari hasera ema-
ten dion ipuinaren gaia, esaterako: goiz batean
ohetik altxatu eta herrian bera ez beste inor ez da-
goela ohartzen den gizasemearen ibileren konta-
keta, aurkikuntza berezi horrek sortuko dion na-
hasmenarekin. Liburu bereko azken ipuina ere,
aipagarria da oso; berez liburu gainerako ipui-
nen lotailu behar lukeenak, nahasmena eragiten
du neurri batean irakurlearen baitan, eta badiru-
di, gainera, idazleak propio bilatu duela nahas-
men hori eragitea. Trebetasun handiaren jabe de-
lako seinale. Laburbilduz, Karlos Linazasororen
edozein lan irakurtzeak ezaxola ez beste mila erre-
akzio sorraraziko ditu irakurlearengan.

EUSKAL IDAZLEEN ARTEAN obrarik emanko-
rrenetakoa duen idazleetakoa bat da, zalantzarik
gabe, Karlos Linazasoro tolosarra; zenbaitetan,
ordea, bere lanak merezi adinako oihartzunik so-
rrarazi ez izanaren sentipena erne dakioke, agian,
irakurleari. Alegia, bere ipuin eta kontakizunak
irakurri eta bere testuetan aurrera egin ahala, mai-
la goreneko idazle baten aurrean aurkitzearen us-
teak pisua hartu ohi du sarritan irakurlearen bai-
tan, eta berehalakoa da irakurleak idazlearen la-
nean murgiltzeak berari azaleratu dizkion senti-
penak gizartean idazleak duen ustezko pisuare-
kin alderatzea. Nolabaiteko desoreka soma deza-
ke irakurleak, akaso.

Familiatik datorkio Karlos Linazasorori euska-
ra eta euskaraz idaztearekiko zaletasuna. Ez zen
alperrik, bere aitona, *Altzeta* goitizenez ezaguna,
gera aurreko euskal hizlari dotoreenetakoa izan.
Bere aita Iñaki, berriz, kazetari emankor eta opa-
roa izan zen.

Altzeta du izenburutzat, hain zuzen, Karlos Li-
nazasororen nobela eder batek; berak asmatutako

Gorka Azkarate

BESTIARIOA. HILERRIKOIAK. BI NOBELA LABUR.

LINAZASORO, Karlos
Donostia: Elkar, 2007

BI NOBELA LABUR irakurtzeko prest zabaldu zuen liburu azala irakurleak. Orrialdeetan aurrera egin ahala idazlearen tranpan erori zela ohartuta, jolaserako prestatu zuen bere burua. Horixe da, irakurlearen iritziz, Karlos Linazasorok liburuan egiten duen lehen gonbitea: jolasa.

Baina bada besterik. Fikziorik fikziozkoena, libreena eta errealtatea bera nahastu egiten dira baina, lan honetan.

K. L. liburuko protagonista, liburuzaina da T herrian, idazlea, benetakoa bezala.

T. hirian bizi den K. L. liburuzain honek, kasualitateak kasualitate, pentsatua du bere hurrengo apunte liburuaren izenburua *Beti eder dena* izango dela (liburuko 52. orrialdean), kasulidadea; horixe baita Karlos Linazasorearen aforismo liburuaren izenburua. Gainera, K.L.k badu bai Karlos Linazasorearen berri; halaxe aipatzen du supermerkatuak joan etorria egiten duen batean:

"(...)Segiduan konturatu nintzen, ordea, hala-koen antzekoak Karlos Linazasoro izeneko idazle batek idazten dituela (neu bezalaxe, hura ere liburuzain dena, bidenabar esanda), eta, jakina, oso itsusia litzatekeela haren plajio bat egitea, Linazasorok berak, han-hemenka esaten denez, nahikoa lotsagabek Mrozek deitzen den idazle poloniarrari ipuinak eta nobelak plajiatzen dizkion arren. Baina nik serio jokatu nahi nuen, Linazasorok baino serioago bai behintzat, literaturarekin." (54. or)

K. L. liburuzainak liburuko protagonistak, urtebeteko eszedentzia eskatu du, liburu bat idazteko; edo bi, nor daki. Baina zortzi hilabete igaro dira liburuak bere kontakizuna hasten duenerako eta aritu arren ezin. Egunerokotasunak bereak dituen errutinak abentura han-

diak bilakatzen dira K. L. ren bizitzan eta horrela ezin idatzi! Absurdoaren literatura, fantasia libre, egoerak irrazionalak dira guztiz. Bere alter-egoa dena, liburuko protagonista, muturreko egoerata eramatzen du autoreak, fantasiaren mundua biziki gustatzen zaiola eta mundu horretan maisuki moldatzen dela erakutsiz.

*"Fantasia duten ipuinak ditut gustuko, ludikotasun ukitu bat dutenak, bizitzaren bortizkeriaz zizpriztinduak, irakurleari oldartzen zaizkionak, indartsuak, iradokitzaileak, ezustez beteak; uste dut, era berean, ipuinak derrigorrezko dituela umorea eta ironia, eta horixek direla giza-tragediari edo alienazioari edo bakardadeari edo absurdoari aurre egiteko armarik behinenak, babesa eta distantzia eskaintzen dutelako. Ipuina lege-hausle sendoa da, bere erregela propioak dituen: hor barruan oraindik badago zirrikitu bat benetan libre izateko, metaforaren eta alegoriaren erreinuan"*¹.

Bestiarioak pasarte gogoangarriak ditu; ironia eta umore beltza usaindu, sentitu egiten da lerroz-lerro pasarteotan aurrera egin ahal. Protagonista *Zahar Baratzean* bahitu zutenekoa edota *Gandiaga* irakurtzen duten *Gure Kabiya* tabernako musulari ilustratuena (liburuko 35. eta 48. orrialdeetan). Urrestillan izeba *Amaliren hileta* elizkizunean, irakurle honi organujolea (19. or) ezagutzen duela ere bururatu zaio, baina *eldarnioa* baino ez da izan agian, auskalo!

Umoreak zenbait pasarteren gordintasuna ezitzen laguntzen du baina idazlearen lumak badu halako zapora mikatz bat.



“(...)Baina nire poesia maiz samintasun sendo batetik sortzen dena, goxoa da, baikorra, ospakizunezkoa; eta ipuinak, maiz alaitasun pletoriko batetik sortzen direnak, berriz, beltzak eta ezkorak eta gordinak dira (...)”².

Linazasorok bere lanetan jeneroen arteko nahasketa lantzen du. *Bestiarioak* antzerki edota *sketch* kutsua hartzen du eta deigarria da aforismoen presentzia. Linazasorok berak ez baitu jeneroetan sinesten³.

Ez du ez jeneroetan sinesten baina ia denean aritutakoa da⁴; narrazioa, eleberria, poesia, apunte edo aforismoak, haur eta gaztetxoentzako egindako poesia eta narrazio liburuak, saiakera, antzerkia eta horretaz gain, artikulugile era bada Karlos Linazasoro, astero Diario Vascon zutabea idazten du. Filologoa ikaske-

taz eta liburuzaina lanbidez, Karlos Linazasoro idazle nekaezina da. Literatur kritikari batek idatzi zuen Karlos Linazasoro idaztearen gaixotasunak jota⁵ dagoela. Berak esana da inori esan ez dizkionak kontatzeko idazten duela, sendatzeko, agian?

Jolaserako beta eskaintzen dio *Bestiarioak* irakurleari. Liburua hasi eta orrialdeetan poliki-poliki aurrera egin ahala, idazleak irakurleari luzatzen dion eskuari helduz, mundu honetan dauden beste munduetara, fantasiako mundura salto egin dezake irakurleak. Irribarretsu.

Izan ere, “ETA KARRAMARROA BALITZ AURRERAKA DABILEN IZAKI BAKARRA?”

Alaitz Vives

1. <http://www.basqueliterature.com/katalogoak/egileak/linazasoro>
2. Volgako Batelariak webgunetik hartutako elkarrizketa atala. <http://eibar.org/blogak/volga/archive/2005/12/13/62/?searchterm=karlos%20linazasoro>
3. “(...) Nik ez dut jeneroetan sinesten (...) euskaraz ez daukagu jenerorik baina, eta nik denak nahasten ditut(...)” Volgako Batelariak webgunetik hartutako elkarrizketa atala.
4. Bere obra kontsultatzeko
5. *Javier Rojo / El Correo*, 2004-02-25. <http://kritikak.armiarma.com/?p=1011>
6. “Idaztea baita nire grina eta nire sendagaia, nire begirada eta bizitzeko dudan arrazoirik ahaltsuena” Volgako Batelariak webgunetik hartutako elkarrizketa atala. <http://eibar.org/blogak/volga/archive/2005/12/13/62/?searchterm=karlos%20linazasoro>



Idazle tolosarrak idazkeraz eta beraz, munduaz duen ikuskeraz gehiago irakurri nahi duenak Volgako Batelariak webgunean du autoreari egindako elkarrizketa osoa. <http://eibar.org/blogak/volga/archive/2005/12/13/62/?searchterm=karlos%20linazasoro>

Karlos Linazasorok literatura sari ugari jaso ditu gainera. Erein Euskadiko Kutxa Saria jaso zuen “Diotenez” 2007an narrazio labur eta mikroipunengatik. 2001ean, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria “Bota gorriak” (2000) ipuinarengatik, Lizardi Saria irabazi zuen 1990ean “Udazkeneko Karabana Erratua” poesia liburuarekin eta antzerkian Toribio Alzaga saria 1997an “Burdindenda” lanagatik, batzuk aipatzearen.

Autorearen lanak kontsultatzeko jo literaturaren zubitegira: <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00222.htm>

Antzararen bidea


MUÑOZ, Jokin

Donosita-Alberdania 2007

LASTERKA BIZIAN ATERA DA gorputz odolusten hasia. Zabuka doa, orain ezkerrera orain eskuinera, Demetrioren algarak lagun. Mutiko ilehoriak ez du txoperaraino segitu begiradaz, berehala begiak itxi baititu eta pixaren beroa sentitu du galtzetatik behera. Horrela ez du antzararik ikusi, txoperaraino iritsita, makal beltz baten oinetan gorpu erori denean, oraindik azken hatsetan bildua.

Lepoa moztu eta gero antzarak bidea egiten badu ere, lepoa mozten dioten unean hiltzen da animalia. Antzararen bidea bezalakoxea da pasarte honetan agertzen zaigun mutiko ilehoriaren bizitza. Agure egin arte bidea egin badu ere, 36ko gerran, Nafarroa Erriberako Trilluelos herrian hil zen.

Mutiko ilehori, Jesus da, eleberriko protagonista. Bera eta Lisa dira eleberriko bi hari narratiboen arteko zubia. Lehenengo hari narratiboa, 90. hamarkadan, Donostian garatzen da. Lisari, semea hil zaio, prestatzen ari zen lehergailu bat eskuan lehertu eta gero. Semea galdu osteko une delikatu horretan, bere bizitzako azken egunetan dagoen agurearen zaindari gisa hasten da lanean. Agure hori Jesus da. Bizitzeko gogorik gabe bizi dena. Zigarro bakoitzak pixka bat gehiago hiltzen duela jakinda ere erretzaile amorratua da. Lisak argazki zuri-beltz bat aurkitzen du agurearen logelan. Bertan gazte alai batzuk agertzen dira festa giroan. Nahi eta ez, irudi horrek Jesusen iraganaren parte izan beha du. Koadro horrek agurearen gaztaroa ezagutzeko grina pizten dio Lisari. Argazkia ateratako lekura bidaitzen du Gigi lagunarekin: Nafarroa Erriberako Trilluelos herrira zehazki. Lisaren bilaketa honek abiarazten du nobelaren bigarren hari narratiboa. Hemen dago nobelaren benetazko mamia.



Frankoren aldekoek Nafarroa Erriberan egin zuten sarraskiaren kontakizun gordina egiten du Jokin Muñozek. Gerra Zibilaren gaineko hainbat pasarte irakurri ahal izan dira euskal literaturaren orrietan, baina ez Muñozek azaldu bezala. *Antzararen bidean* biltzen dituen pasarte lazgarriak zirrikitu batetik ikusi izan balitu bezala kontatzen ditu; gertutasun izugarri batekin. Irakurleak hotzikarak ere sentituko ditu nobelako pertsonaiek bizi dituzten muturreko egoerekin. Pertsonaiak ere oso ondo definituak dira, bakoitza bere izaerarekin, pertsona errealak izan diren sententzia ematen du.

Latza bezain ederra iruditu zait Jokin Muñozen eleberria. 350 orri izanda ere, egun gutxi bazuetan irakurtzen den horietakoa da. Gizartea oroimen historikoa berreskuratzeko ahaleginean ari den honetan, egia jakin eta zerbait aldatzen al da? galdera airean utzi du ausardia handiz. Euskal literaturan kontutan hartzeko moduko idazlea dela frogatzen ari da nafarra.

Leire Zubeldia

GEROAREN AURPEGIA

LASA ALEGRIA, Amaia.

Euskal Unibertsitateko Argitarapen zerbitzua. 2000

- Eta?
- Asko gustatu zait.
- Ezustekoa, ezta?
- Bai horixe! Eta hain gertukoa gainera. Pentsa! Zu Zarautzen eta bera Getarian.
- Lotsa pixka bat ere ematen dit, baina oraintsu ezagutu dut AMAIA LASA. Bere lanak eta bere ibilerak harrapatu egin naute. Ez da erraza poeta batekin bat egitea, bere hitzak hain ondo ulertzea, esan nahi duena hain barrura heltzea.
- Egia, bai, xumea eta sakona da aldi berean bere mezua. Ederra da inondik ere bere gogoeta, eta ausarta bere baitan ageri den borroka.

AMAIA LASA ALEGRIA Getarian jaio zen, 1948an. Gazte-gaztetatik poeta dugu: bizipe-nak, nahiak eta kezkek islatu ditu bere obran testuinguru zehatz batean uztarturik. Mikel La-sa anaiarekin argitaratutako liburutik hasita ibilbide oparoa izan du. Urte batzuek eman zituen Nikaraguan eta beste hainbat herrialde-tan, eskarmentu honek guztiak asko aberastu zuen bere izatea eta bistan da bere lanetan. Hainbat aldizkarietan iritzi eta gogoeta artiku-lu asko idatzi bazuen ere poesian topatu zuen bere bidea. Bere garaian zegoenik eta emaku-mezko idazle bakanetakoa dugu. Gizonen mun-duan bere espazioa lortu zuen. Garrantzitsua izan da oso bere ahotsa, emakumea da eta ez da isilik eta konforme gelditzekoa.

Esku artean duzun *Geroaren Aurpegia* liburu-kiak biltzen du bere obra. Bertan topatuko di-tuzu:

Geroaren aurpegia
Sustraia
Ordu minduak
Egunak jarraian
Nire Paradisuetan

Honetaz gain, hitzaurrean Felix Marañaren eta Jose Luis Padrónen hitzak aurkituko dituzu; do-



kumentazio gehigarrian Linda Whitenenak, Mar-tin Ugaldere-nak eta Mariana Youngenak.

Esan dezakegu, Amaia Lasak norberaren sen-timenduetatik abiatuta mundura zabaldu due-la begirada eta tokian tokiko ezaugarriak kon-tuan hartuta, intimista izatetik lau haizeetara jaurti duela bere poesia.

Idazle konprometitua da, bai bere kulturare-kiko eta baita bere bidaietan bizi izan dituen kulturekiko ere. Errealitateari era holistiko ba-tez so egiten dio. Hegan egiteko gaitasuna du, beti ere lurrarekiko atxikimendua ahaztu ga-be. Bietan hartzen baitu arnasa Amaia Lasak, biak ditu bide lagun, osagarriak direlako; ama, emakumea, amorantea izatea osagarri diren be-zalaxe. Poesia idazteko hautatu zuen hizkera zuzena eta gardena da. Berehalakoan heldu nahi zuen irakurlearengana, baita lortu ere. Esan nahi duena garbi esaten du, sufritzen due-na ederki ulertzen dugu, ez dago mozorrorik. Eta bere poesia bakoitzak doinu jakin bat dau-ka, emakumearen garrasia, gizartearen gordi-na, kaioen oihua: Getariako gozoa eta gazia. Gaur egun isildua dugu Amaia Lasa, baina be-re ahots idatziaren oihartzuna gidari nahi du-gu bizitzaren kolorearen bilaketa etengabean.

Carmen Valois – Itziar Gomez

BESTALDEAN

BORDA, Itxaro. Donostia: Susa. 1991

*Zorion perfekturik ez beretzat,
ez guretzat, ez niretzat;
berak esana da, nik kontraesana.*

Liburua niri zuzendurik zegoela irakurri dut hasieran: "iraztor, ainara, sorgin eta aztiei hitz amultsu hauen eskaintza maitemindua". Eta ainara hau maitemindu, mindu da, mina sentituz irakurri baitu ondoeza eragiten duen olerki-bilduma hau. Badirudi, poesia eta sormena ondo ezak eragiten duela; izan ere, pozik gaudenean, ez dugu idazten, bizi egiten dugu, ala?

Noizbehinka, tristura pozarekin nahasten zait bizitza nola badoan ikusirik eta hitz garrantzitsuak nola esan ez jakinik. Askotan oraina lehengoarekin lotzen zait eta neure baitako kontraesanak ateratzen zaizkit; noizbehinka.

Itxaroren beste aldeko olerki horiek guztiak irakurri arte ez dut bakerik izan, eta nire oina-zeek ez dutela oinarri arrazional izpirik ohar-tzeko baliagarri izan zait, ezin baitiot inori neure sentimendurik ulertarazi. Ainaratxoek lo egin dezaten gauean kabi goxoa eraikitzen dute egunez eta ni hala bada hainbeste ainaren artean hegan joan naiz Itxaroren letretan barna eta ene arimaren ahizpak zirela konturatu naiz. Inori ulertarazi ezin diodana, nik neuk bakarrik sentitzekoa da, norberak jasan beharreko zama.

Eta utziko dut haizeak eraman nazan nahi duen tokira, batzuetan bestaldeko amodioa topatuko dut eta bestetan hemengo bakardadea, baina beti ere ikasten bi aldetan egoten, ez han eta ez hemen. Ezinegonaz sortzen du poema-liburuak eta ondoez horrek deus ere ez naizela ikusarazi dit... edo banaiz!

Alaba, ama, ahizpa bati mintzatuz bezala, mintzatu zaizkit poema horiek emeki eta denari buruz hitz egin didate, baina batez ere ezintasunaz mintzo zait, nekeza baita hitzetan onartzea alaba, ama, ahizpa, emakume horiek guztien



hutsunea; eta horregatik, hitanoa erabiltzen du hurbiltzeko, eta mutu irakurri dut ikarazko hitzak laztandu asmoz, nolabaiteko maitearen aiduru. Inoiz ere iritsiko ez den maitearen zain desertuan oihukatuz ez garela aldatu, baizik eta denborak gaituela higatu.

Bakarmina, amoremina, min guztiak gurekin ditugu eta minaren trukean ez genuke zorionik lortu behar... zoriona minaren bestaldean baitabil hegan. Minez airean hegan, minez txori izateko sortu ginen, baina soilik ametsa dabilkigu airean hegaletik minez. Ainaren hegaletan bihar-koa eder zezakeen izarlokaren ihesean urtu nintzen, eta ainarak itzuli artean hegalminez segituko dut neure kontraesanetan.

Ainara Maia Urroz

www.idazten.com

(gure web orria)

2007an hasi zuen bere ibilbidea www.idazten.com gure web orriak. Bertan gure lanak argitaratzen ditugu eta irakurtzen, gutarikoek idatzitakoak. Idazle Eskolako kide izandako guztiok dugu bertan gure lekua.

Orriaren atariak berak erakusten ditu bide ezberdinak baliabide ugarietara iristeko: IDAZLEAK, IDAZLANAK, IRUDIAK edo ESTEKAK (Atal honetan idazle batek bere mahai birtualean lagungarri dituen helbideak daude, bai hizkuntzaren zuzentasunari buruzko helbideak eta baita literatur munduari lotutakoak ere); EGILEAK edo AGENDA (Idazle Eskolako ikasle taldea eskoletara etortzeaz gain, antolatzen dituen ekintzen berri ematen duena). ENTZUKETAK atalean entzungai daude idatzita azaltzen diren hainbat testu, baita Herri Irratian eta Euskadi Irratian egindako grabaketak edo Ilunabar literarioetan eskainitako irakurketak ere.

Orriak eskaintzen dituen berrikuntzen artean, aipagarriak dira, erabilerarako ematen duten erraztasunagatik:

- Testuen irakurketara egilearen (IDAZLEAK) edo generoaren (IDAZLANAK) arabera aukeratu ahal izatea, edo
- Idatzizko euskarriaz gain, testuak irudiz eta ahotsez lagunduta irakurtzeko aukera.

Orria osatze prozesu etengabea ari da eta horrela arituko da, urteroko ikasle berrien ekarpenak ditu eta elikagai.

Sortu zenetik gaur arte ehun mila bisita izan du orriak eta bisiten batzaz besteko denbora 9 minutukoa da. Beraz, bada Euskal Herrian idazle berriok idazten eta eskaintzen ditugun lanok irakurtzen duenik ere.



Orria osatze prozesu etengabea ari da eta horrela arituko da, urteroko ikasle berrien ekarpenak ditu eta elikagai.


GU AGERKARIETAN

MUGALARI, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ, NABARRA, EUSKO-NEWS...

2005eko urtarrilaz geroztik, IDAZLE ESKOLAko ikasleek zita duten GARA egunkariaren literatur-gehigarrian, MUGALARIIn. Bertan argitaratzen dituzte ikasleek beraien lanak, bere bidez jaso dezakete irakurle erre-alaren oihartzuna, bertan osatzen da idazleen plaza berria. Kristina Fernandezek egiten ditu lan hauentzako irudiak, espreso.


Horretaz gain, beste agerkari batzuetan ere ekin diogu argitaratzeari: *Administrazioa euskaraz*, *Nabarra* edo *Eusko-news*- en.

Aldizkari hauetan plazaratutako lan guztiak, irakurtzeko moduan daude www.idazten.com orriko ARGITALPENAK atalean.



BEKA

Beka hauen helburua ez da lehia bultzatzea, baizik eta ikasleak lan luze eta sakonagoetara bideratzea.



Edozein gai eta edozein genero aukera daiteke, literaturazkoa, zein administrazio-dibulgaziozkoa.

2007ko beken irabazleak izan ziren prosan Iñaki Odriozola, "Whiskia eta hondartza" lanarekin, poesian Doltza Barandairan eta Dibulgazioan Jon Uru-txurtu "Zeanuriko errota: Olabarriko errota" lanarekin. Lan hauek ere www.idazten.com atalean aurki ditzakezue, egile horien lanen artean.

2008ko ediziora 9 lan aurkeztu dira.

IDAZLE ESKOLAKO IKASLE ETA IKASLE OHIAK SARITUAK, LITERATURAN

2007-2008 ikasturtean gure hainbat ikaslek literatur-sariak irabazi dituzte

Ainara Maiak, Idazle Eskolako 2. mailako ikaslea denak, 2007ko abenduan “Bizenta Mogel” ipuin lehiaketaren hirugarren saria irabazi zuen Eskutitz baten bidaia ipuin laburrekin.

Ekaitz Goienetxeak, Idazle Eskolako 1. mailako ikasleak, Trastaka taldearekin batera, 2007an, “Euskal Herriko ikusentzunezko film laburren 3. rallya irabazi zuen, *Bestaldean* izeneko lanarekin

Karmele Igartua ikasle ohiak Euskaltzaindia-BBKren Felipe

Arrese Beitia saria jaso du poesia alorrean, *Hitzak orbainetan* liburuarekin. Liburuakain inguruan argitaratuko da.

Isabel Etxeberria ikasle ohi eta Mugalariko kolaboratzaileak JOSEBA JAKA LITERATUR BEKEtan, Haur eta Gazte literaturakko jasodu, *Mambo number five* lanarekin.

Karlos Aizpurua ikasle ohi nagusitu zen **Markina-Xemeingo Peru Abarka** narrazio lehiaketan, helduen ipuin sailean, **Kamera gose** lanarekin.

Ilunabar literarioak

Zumarragako Legazpi Dorretxean izan zen 2007ko ekainean, denetan lehena. Bertan Idazle Eskolako ikasleok eta Zumarragako idazleen artean irakurketa saio bat burutu genuen. Poesiak bildu gintuen gehien batean, bibolin jolea lagun, baina izan zen genero ezberdinetako eskaintza ere bildu ginenon artean.

Irungo Kabigorri Ateneoak hartu gintuen hurrengo, Iruñean. Han, Idazle Eskolako bera irabazleen lanak aurkeztu eta irakurri genituen, besteak beste: Iñaki Odriozolaren “Hondartza eta Wiskya” eta Doltza Barandianen poemak.

Irungo Ilunabar Literarioaren egitura jarraituz bildu gi-

nen Elgoibarren abenduan eta Iruñean 2008ko martxoan.

Iluntzetan gure sortze-lanak eskaini dizkiegu gerturatu diren lagunei, ozenki irakurritako antzezlan, olerki, gutun edo ipuinez betetako saioetan.

Asmoa zenak bidea egin du eta izango da hemendik aurrera ere Ilunabar batzutan literatura bazterretan, izan ere, ikasturtea bukatu aurretik aurre-ikusten ditugu maiatza eta ekainean, Lizarra, Aretxabaleta, Zumarraga edo Beasain bildu-leku.

Informazio gehiago: www.idazten.com gure web orrian eskura dezakezue.

Igandez sortu nintzen behin

Egun batean, ez naiz oroitzen noiz eta nola izan zen ere, kardaberaren luma bat iritsi zitzaidan sudurrera eta arnasaldi sakon bat hartuz luma haren HATSAREN indarraz Senpereraino iritsi nintzen Larrun begien bistan eta ametsetan...

... lagun batek ameslari bat nintzela esan zidala oroitzen naiz, eta Senperen ohartu nintzen ez nintzela ameslari bakarra. Gerroztik, HATSA hartuz eta POESIA botaz bizi naiz munduan, neure burua ezin kokatuz batzuetan, bestetan galdurik jendar-tean.

Hamar urte iragan dira, hamar liburu. Apirilaren lehen igandean urtero, olerki-bilduma hori izan da enetzat bederen ihes betea, eta olerki-bilduma horretan bildu gaitu Senpereko Oxtikenia elkarteko Auxtin Zamorak hainbat eta hainbat olerkari ezagun eta ez hain ezagun, elkar ezagutzeko asmoz, lastozko ihesbideetan galtzeko eta barneko burbuiletan nabigatzeko. Olerkari horien artean idazle eskolako hiru ikasle gaude: Carmen Valois, Itziar Gomez eta Ainara Maia. Gure barneko hatsaren bidez, besteen hatsarekin mozkortu nahi izan dugu eta denon artean HATSAREN POESIA sortu:

Ni zure hatsa
Zu nire hatsa
Besteak gure hatsa
Denok hatsegin dugu mundu hau.

Ainara Maia Urroz



arte > 9



M. MUNIATEGIANDIKOETXEA

EL CONSTRUCTIVISMO RUSO Y LAS FORMAS TRIDIMENSIONALES, EJES DE LA ÚLTIMA MUESTRA DEL ARTISTA BERGATARRA EN KM.

musika > 12



CONCERTGEBOUW

LA CARISMÁTICA SALA DE ÁMSTERDAM ACOGE EN LA ACTUALIDAD A LOS MEJORES DIRECTORES E INTÉRPRETES DE MÚSICA CULTA DEL MUNDO.

zinema > 15



«TODOS LOS DÍAS SON TUYOS»

THRILLER MEXICANO SOBRE LOS REFUGIADOS POLÍTICOS VASCOS EN EL PAÍS AZTECA, CON LAS ÚLTIMAS EXTRADICIONES COMO TELÓN DE FONDO.

2008ko apirila

LARUNBATA

19

GARA KULTUR. GEHIGARRIA

mugalari468



LIBURU ELEKTRONIKOA

LIBURUGINTZA ARO DIGITALEAN SARTZEAREKIN BATERA, IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO MODU BERRIAK SORTZEN ARI DIRA. HORREGATIK, TEKNOLOGIA BERRIAK, BALIAGARRIAK IZATEAZ GAINERA, EZINBESTEKO BIHUR LITEZKE.

ARTOLAZABAL AMILLETA, Amaia

Zumarragan jaioa 1981ean. Azken lau urteetan Ikastolen Elkartearen, ikasmaterial-gintzan dihardut lanean. Eta iaztik, Idazle Eskolako ikaslea naiz. Idazteko eta hobeto idazten ikasteko jo nuen bertara.

AZKARATE, Gorka

30 urteko urretxuarra. Idazle Eskolako 2. mailako ikaslea.

Bilbon Industri ingeniari ikasketak egin eta lan horretan diharduena. Denbora librean mendira joatea maite du gehien, eta baita bertsoan aritzea, irakurtzea eta, nola ez, idaztea ere. Beste mila gauzaren artean, noski.

BALERDI ARANBURU, Iban

Goierriin jaio eta bertan bizi naiz 1976tik. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua. Gaur egun, hala ere, euskara klaseak ematen ditut. Ikasten eta hazten jarraitzeko beste pausu bat izan da Idazle Eskolara joatearena.

ETXEBERRIA ELEXPURU, Andoni

Leioakoa naiz, orain Erandion bizi arren. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen EHU-n. Momentu honetan, telebista korporatibo ezberdinen edukietaz arduratzen naiz: gidoiak, loku-zioak edo itzulpenak prestatuz.

GEREKA, Axun

Axun Gereka naiz, Oñatin jaioa, euskalgintza esparruan orotarako ibilia, eta orain zure bidaide

GOIENETXEA CERECEDA, Ekaitz

Biarritzen jaio zen, 1982an. Egun, Bermeon bizi da. Kazetaritzan lizentziaduna, soinu teknikari ikasketak egiten dabil eta Idazle Eskolan 1. mailako ikaslea da. Berría eta Busturialdeko *Hitza* egunkarietan aritu izan da, eta Irola eta Busti irrati libreetan ere bai. Euskal Herriko Ikusentzunezkoen III. Rallyan lehen saria jaso zuen iaz, Trastaka taldearekin batera, 'Bestaldean' film laburragatik. Orain, langabezian, estudiatzen eta ikasten ari da (azken hori, etengabe).

GOMEZ SARASOLA, Itziar

1964. Errenterian, Pasai Donibanen eta Irunen osatua. Bikoizlaria eta aktore zuzendaria. *Hitza* beti izan dut tentazio eta sormena eguneroko ilusio. Muxu zaparrada denontzat!

IGARTUA BENGEOA, Karmele

(Aretxabaleta, 1959)

Idazle Eskolako ikasle ohia.

Gertatzen zait, askotan, idatzi ezin duan orduetan etortzen zaizkidala idatzi beharrekoak gogora; horregatik, egunero topatzen dut lekutxo bat eta denbora bat, ez- denboretan eta ez- lekuetan otutakoak idazteko.

JUARISTI, Miren

Idazle Eskolako 2. mailako ikaslea da. Zine eta bideo ikasketak burutu ditu.

Gaur egun, gidoigile lanetan dihardu *Moztu Filmak* enpresan.

MAIA URROZ, Ainara

Idazle eskolako 2. mailako ikaslea. 1976ko ekainaren 6an, igande goiz batez Irunen munduratua eta geroztik bizi naiz hatsa hartuz eta poesia botaz. Euskal Filologian lizentziaduna eta hainbat lanetan aritua: gidari kulturala, euskara irakaslea, itzultzailea, filologoa, euskara teknikaria. "*Galtzea metodo kontua da*" eleberri beltza itzuli nuen gaztelaniatik euskarara eta Hatsaren Poesiaren olerki-bilduman parte hartzen dut urtero neure poemaren batekin.

MEAZA URIAGEREKA, Igone

(Gernika, 1977). Euskal Filologia ikasi nuen eta egun, euskara irakaslea izateaz gain, hiztegi-gintzan dihardut. Idazle Eskolan 1. ikasturtea da.

MUNARRIZ ERASO, Juan Miguel

1948, Elizondo. Valladolideko Unibertsitatean, medikuntzan eta Madrileko Konplutensean, estomatologian lizentziatua; baina, lizentziaturatik preziatue-na: euskalduna izatea. Euskaraz bizi eta ikastea izan da bere amets potoloena, eta, horrexegatik, joaten da larunbatero Bergarara: Idazle Eskolara! Eta gero?

NORIEGA, Maku

Gasteiztarra. Donostian egin zituen Euskal Filologiako ikasketak. Lanbidez, euskara irakaslea, itzultzailea eta zuzentzailea. Zaletasunez, Idazle-Eskolako ikaslea.

LEKUONA ILUNDAIN, Aitziber

Arrantzale herri bateko baserri batean jaio nintzen duela mende laurden. Beste hainbat gauzen artean iragana dut ofizio eta afizio. Izan ere, badira urte batzuk denbora lapurtzen didan gaitz batek jo ninduela: hiperaktibitatea. Idazleetatik ikastea izan da otu zaidan azken abentura.

ODRIOZOLA SUSTAETA, Iñaki

Elgoibartarra. 1961ean jaioa. Elgoibarko Institutuan Filosofia irakasle. Antzerkilaria ohi, eta idazle amateurrea.. 1982an Elgoibarko 1.Etxepe saria eta 1994an Bilboko Central Hispanoko "Imagina Ezazu Euskadi" saria, poesia arloan. Idazle eskolako 2. mailako ikaslea.

ORZAIZ GALARZA, Ion

Iruñean jaio zen 1981ean. "*Euskaldunon Egunkaria*", "*Berría*" edo "*Esan Erran Irratia*" hedabideetan aritu ostean, "*Zazpika*" aldizkarian lan egiten du gaur egun, erredaktore lanetan. Bere ipuinak "*Nabarra*", "*Haritu*" eta "*Mugalari*" aldizkarietan argitaratuak izan dira.

VALOIS NUÑEZ, Carmen

Ostegun Santuan jaio nintzen santutasun zantzurik izan gabe (1958) Geroztik, urteek aurrera eraman nauten, batzuetan geldo, besteetan zakar. Iruñea-Zarautz, bi abiapuntu nire ibilbidearen geografian. Errealitate poliedriko baten aztarna eta testigu.

URUTXURTU BENGOTXEA, Jon

Zeanuri, 1959. Historian lizentziatua. Irakaslea Lauaxeta Ikastolan. Idazle Eskolako bigarren mailako ikaslea da.

VIVES URBIETA, Alaitz

1976an jaio zen mendarorarra. Kazetaritzan eta Publizitatean lizentziatua, telebistan, kamera osteko lana du ogibide. Idatzi, ez idatzi, hitzei edukiontzia eman die azkenik. Edukiontzia eta erakustokia.


ZUBELDIA, Leire

1984. urtean Zizurkilen jaioa. Kazetaritzan lizentziatua, gaur *Galtzaundi* aldizkarian egiten du lan. Irratian ere aritu izan da. Idataraziko zion akuilu baten bila jo zuen Idazle Eskolara. Lehenengo mailako ikaslea da.

Kultura bizi

gizarte ekintza

kultura



Kultura bizi eta gozatzea, gure ohitura, arte eta tradizioekin bat egitea, gu gipuzkoarren izakera eta sentikeraren agergarri eta adierazgarri direnez. Horrexegatik, Gipuzkoan antolatzen diren arte-ekimen eta kultur ekitaldiek beti daukate gure babes osoa. Kutxaren babes.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

www.idazleak.org



Euskal letren alde



Euskal Idazleen Elkarte